

uk

54. zenbakia / 2003 abenduak 21



sopranoa

# LATZ

GORROTXATEGI

abesbatza

# BIOTZ ALAI

JAVIER OYARZABAL  
zuzendaria

Abenduaren 19an arratsaldeko 20:00etan Getxo Antzokian

Sarrera: 10euro

AURREZ SALGAI ABENDUAREN 9tik AURRERA  
ALGORTAKO KULTUR ETXEAN (VILLAMONTE) eta TELEKAN

berria

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Antzarak gurean. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Sasi ekologistak, Joxe Legarreta. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. San Nikolas plaza.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopolana 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

### SAKONEAN

24. ALBUMA. Euskararen jardunaldiak Getxon. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Ruper Ordorika. Javi Zabala.
30. ERREPORTAJEA. Tebilitza. Unai Brea.

### KULTURA ETA AISIA

32. FOTOGRAFIA. Saharaiak, Asier Mentxakaren argazkiak.
38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Areetako Gran Cinema.
39. MUSIKA. Urdulizko Producciones Serrano. Diskoen erreseinak.
40. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Eusko Bibliografia.
41. KOMUNIKAZIOA. Telefonoaren sorrera.
42. NATURA. Gure hondartzen egoera. Basurdea.
43. ELKARRIZKETA. Olatz Gorrotxategi, kantaria.
44. OSASUNA. Kontsumorako grina eta loditasuna.
45. JANTZI. Ezkontza kontuak. Jon Urresti.
46. SAREA. Internet.

### EUSKARAZ

48. URIBERTSOAN BARRENA. Gabi Basañezi elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
50. AKABUKO PUNTE. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

### AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pintxo bat? Adibidez, Ganeta Berri tabernan.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIKETA.
57. FLASH BACK. Zabalako eskolak, 1934. Unai Brea.
58. AITORMENAK. Arantza Sinobas. Eunate Serrano.

Azaleko argazkia: ASIER MENTXAKA



26 Ruper Ordorika



43 Olatz Gorrotxategi

### Berbetan

13. diskoa auzetu berri du, *Kantuok jartzen ditut* izeneko. Munduko hiritasunaz, euskalduntasunaz eta bere lanaz berbetan egon gara Ruperregaz.



48 Gabi Basañez



32 Saharaiak



24 Euskararen jardunaldiak



58 Arantza Sinobas



# Scras. Julia Lear

JANTZIAK, NIKIAK, EUSKAL ARROPA,  
MOZORROAK ETA GABONETAN  
BEHAR DUZUN GUZTIA!

Juan Bautista Zabala 3, 48991 ALGORTA / Tfno. 94 460 04 62

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Arnezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO  
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Unai Brea, Jon Urresti, Eunatze Serrano  
**FOTOGRAFIA:** Asier Menbeka

**TESTUEN ORRAZKETA:** Xabier Bilbao  
**KOLABORATZAILEAK:** Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iratxe Agirre, Eduard Ugartea, Xabier Etxebarria, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Mixelko Uranga  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

**HARREMANAK:** Gorka Onjeta

**FILMAZIOA:** Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF

**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00

**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

 <p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>TOPAGUNEA</p>
Itxasgane Etxea / Karitatega 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta	

 <p>GETXOKO UDALA</p>
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

 <p>Leioako Udala</p>	 <p>Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du	VBRLA

 <p>Erandioko Udala</p>	 <p>Aldizkari honek Erandioko Berboto Euskaraz elkarrearen laguntza jasotzen du</p>
--	--

 <p>Bizkaiko Foru Aldundia</p>
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

 <p>Fundación Grupo Eroski</p>
---

**UK**  
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BK 2095 0121 10 91 02483676  
Boluntzarreta

# gugeu

## Agur ala laster arte

**Urteko azken UK.** Data hauetan urtero legez, Gabon zoriontsuak opa behar dizkizuegu, gu, aldizkaria argitaratzeari dagokionez, atsedendia hartzera goaz eta. Horek ez du esan gura, ordea, geldituz egongo garenik. Urtero bezala, datorren urteko UK prestatzen hasi behar dugu, aurtengoak emandakoa aztertuz lehenbizi. 2004ko UK aldizkaria abendu honetan hasi behar dugu mamitzen, bai, datorren urtean UK existituko den ere ez dakigun arren.

Urte berezia izan da hau guretzat. Hamabostero kaleratzeari ekin genion otsailean, lan taldea handituz gainera. Laneez gainezkako urtea izan da, batzuetan zailtasunez gainezkakoa ere bai; askotan ozta-ozta ailegatu gara geure lana betetzera. Pozik egoteko moduko urtea hala ere. 50. zenbakira ailegatu gara, eta berriro pertsonaia ospetsuak eta batez ere eskualdeko jendea geure orrialdeetara ekartzea lortu dugu. Gauzak hobeto egiten ahalegindu gara, aldizkariaren betiko izaerari uko egin barik, eta hein handi batean lortu dugula deritzogu. Baina zuei dagokizue epaitzea, noski.

Etorkizunik hurbilenak zer dakarren ez dakigu. Askotan errepikatu dugu aurten proiektu hau kinka larrian egon daitekeela datorren urteari begira, eta urteko azken Gu Geu idazten gabiltzan honetan, egoerak bere horretan jarraitzen du. Ez gaude ziur lerro hauek agur ala gero arte esateko erabili behar ditugun, aldizkari honen jarraipena ez dagoelako gure eskuetan. Erantzuna datorren otsailean jakingo duzue. Bitartean, eta badaezpada ere, eskerrik asko denagatik.

UKko lantaldea


### gutunak

**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu.**  
**Zuon testuak bialtzeko:** aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

### goierritarrak



Goizero >>>>> **berria**



### “V” bat zeruan

Ruper Ordorikak ederto abesten duen Bernardo Axxagaren *Egumero*ko bizitza olerkiak horrela dio zati batean: “*Negua heldu zen azkenez eta antzerk V bat egin zuten zeruan, dispensariotan antiritzezi pildorak barnatu zituzten ugari...*”. Gurea ere negua heldu da, eta ahateen antzerkoak baina tamaina handiagokoak diren antzerk zeharkatu berri dute gure eskualdea zeruan V formazio ikusgarriak irudikatuz. Gure argazkilariek Punta Galean hartu zuten irudi hau abenduaren hasierako egun goibel batean. <sup>m</sup> / Argazkia: Asier Mentxaka

**Leihatila**

&gt; Josu Esnaola

**Abenduaren 3a**

Abenduaren 3a, ohetik erdi lo altxatu eta eguneroko ohiturari jarraituz gosaldut bitartean irratia piztu dut. Abenduaren 3a, euskararen nazioarteko egunaz berba egingo zutela pentsatu, baina bai zera, zelako ezustea, ezinduen nazioarteko eguna ere ba ei da.

Diotenez, ezindu fisikoek zailtasun eta oztopo ikaragarriak dituzte eguneroko bizimodua normal-normal egiteko, hamaika lekutara heltzeko sarbiderik ez...

Pentsatu dut egun aproposa aukeratu zuela Eusko Jaurilaritzak euskararen nazioarteko eguna abenduaren 3an izendatu zuenean, eta ez Xabierko Frantziskoren eguna delako, ezta Nafarroaren eguna delako ere, ezinduekin bat egiteagatik baizik. Izan ere ezinduak gara euskaldunok geure herrian bizitzako hainbat eta hainbat arlotan. Ezintasuna nabaritzen da etb1 katean erdarak gero eta sarbide errazagoa duela ikustean, inolako lotsarik gabe sartzen baitute azken aldiotan, eta ez litzaidake txarto irudituko etb2 katean euskararekin gauza bera egingo balute, baina ez dut halakorik antzeman.

Ezintasuna, berdin ere, gaztelera eta frantsesa gure herrian derrigorrezkoak direnean eta euskara borondate hutsezkoa, euskara ere derrigorrezko izendatzea zuhurtzia falta litzatekeela entzutean. Abenduaren 3a, euskara ezinduaren nazioarteko eguna. 4



aldizkaria etxean  
jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa  
Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

**Iritzia**

**Autoaren erabilpenaren gainean gogoeta hau helarazi digu irakurle batek**

**Gizaki sasiekologista**

**Gaur egungo** gizakiari pentsamolde sozial-estandarra erakustea eskatzen bide zaio, hala nola, “ni ez naiz arrazista”, “ni tolerantia naiz”, “ni irakurzalea? jakina, hilabetero liburu bi irakurtzen ditut”, “ekologista naiz” eta horrela, abar eta abar. Egia esan, luze joko liguke estandarizazio honetatik kanpo ez geratzearen zer adierazi behar genukeen zerrendatzeak. Beraz, norberak atera ditzala ondorioak!

Oraingoan, ordea, “ekologista naiz” horren inguruan arituko gara. Baten batek “ni ez naiz ekologista” esango balu, nola begiratuko genioke? Zertzat hartuko genuke? Ez naiz ahul eta baztertuen defendatzaile-zereginetan hasiko, ordea. Baina, kontrara, gizaki kaletar-ekologista horri autoa ezinbestekoa denetan baino ez erabiltzea eskatuko bagenio, zer? Eta ahalegin hau eskatzeko, badaude arrazoi franko:

- Automobila da gure herrietako eta hirietako ingurumenari kalterik handiena egiten dion faktorea.
- % 30etik gora hazi dira 1990-2000 epean auto-kopurua eta horrekin batera arnasten dugun kutsatutako aire-kantitatea ere igo da.
- %60an igo da autobia zein autobide-sarearen kilometro-kopurua 1990etik 2000ra bitartean, eta honekin batera zenbat mendi eta lur-sail hondatu dira?
- 1989ko % 38tik 2000ko % 47ra hazi dira lantokira edo lantokitik autoz egiten diren joan-etorriak.
- Garraio publikoa, ibilitako kilometroko, merkeagoa da automobil pribatua baino.
- Garraio publikoa, bidaiariko energia-kontsumoari dagokionez, askoz eraginkorragoa da automobila baino.

Gure gizaki kaletar-ekologista hau prest legoke autoari uko egiteko, behar-beharrezkoa denean izan ezik? Ba al daki noiz den behar-beharrezkoa? Eta zu zeu, zer? Horietakoa al zaitugu? Neronek, badaezpadan, ez dut erantzungo? 4

Joxe Legarreta

**«Gizaki kaletar-ekologista horri autoa ezinbestekoa denetan baino ez erabiltzea eskatuko bagenio, zer?»**

[lehen]



[orain]



**Iraganez doa denbora\* beti / SAN NIKOLAS PLAZA**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Romo eta Sestao futbol taldeetako beteranoek Bolue zelaian bildu ziren

## urteurrena > romo futbol taldearen zilarrezko ezteiak

**Romo Futbol Taldea** 25. urteurrena ospatzen hasita dago. Goiko irudia, hain zuzen, abenduaren 8an Romo eta Sestao futbol taldeetako beteranoek elkarren kontra jokatu zuten partiduari dagokio. Romoren aldetik, besteak beste, Genar Andrinuak hartu zuen parte; beharbada bera dugu klubaren historiako jokalaririk garrantzitsuenen artean, urte askoan Athletic-eko kapitaina eta atzelari ezagunenetakoa izan zen eta. Partidua berari eta Romon hasitako beste jolakari garrantzitsu batzuei omenaldia egiteko ere erabili zen. Zelan amaitu zen norgehiagoka? Hori gixienekoa da, zu! <sup>m</sup>




Partiduaren aurreko hainbat irudi

## kirola > mundialitoa

**Aurreko UK batean** aurreratu genizuen, eta hasierako asmoekiko hiru eguneko atzerapenez bada ere, abenduaren 8an hasi zen Leioako futbol *Mundialitoa*, Kolonbiako eta Euskal Herriko taldeen arteko lehiak. Dakizuen, hainbat herrialdeetako etorkinek osatutako taldeek (eta Euskal Herrikoak noski) jokatu dute Mundialitoa, abenduan zehar eta Leioako Sarriena futbol zelaian. Bide batez, esan dezagun aldizkari hau txapelketaren babesleetakoa dela, Radio Tropical eta Etorkinen Ahotsa egunkariagaz batera. Zorte on guztioi! <sup>m</sup>



## jakingarri > hil da "Eusebito"



Bertsolari panderojole ezaguna zen Sopelako Eusebio Roura

**Mendi gailurrerako bidean**, aurretik ibilitakoen aztarnak aurkitzeak ematen digun ziurtasuna legezkoa zen Eusebio Roura bertsoan entzutea. Askotan panderoa eskuan zuela, eta inoiz, soinuak lagunduta. Bertso bat baino gehiago segidan abesten entzun nuen lehenengo txori kantaria zen bera. Gure eskualdean garai batean galtzar baina gaur egun osasuntsu bizi den bertsogintzaren aitite modukoa. Gure belaunaldikook entzutez baino ezagutu ez dugun belaunaldi baten azken katemaila. Aurrera egiteko arrazoia eta kontuan hartzeko erreferentzia. Eustakio Eulearen garaietatik ailegatu zitzaigun kantuzko mezua. Izan ginenaren aitortza eta izango garen seinale. Ez dugu berriro kantuan entzungo, ez, teknologiaren laguntzaz ez bada. Baina ez dago dudarik gure bertso bakoitzean bere haize bolada igarriko dena. Ikusi ez arren, ondo dakigulako gure saio guztietan izango dena entzule moduan. Agur eta ohore, bertso lagun. <sup>m</sup> / Testua: **Fredi Paia**

## kale izendegia > Ebaristo Txurruka



Ebaristo Txurruka, Bilboko portuaren eraikuntza-lanen arduraduna

**Areetako kaiak** Ebaristo Txurruka Brunet ingeniari nafarraren izena dauka. Bergaran eta Madrilan ikasi ostean, Murtzian egin zituen praktikak, eta 1863 eta 1866 urteen bitartean, Andaluziako zenbait itsasargi eraiki zuen. Bizkaira itzuli zenean, Bilboko eta Gernikako itsasadarrak zaintzeko proiektuari ekin zion, baita Bizkaiko kostaldeko itsasargiak zaintzekoari ere.

1867an Puerto Ricora bidali zuten Txurruka; han portuak eraiki, ur-sareak antolatu eta beste hainbat lan egin zituen. Kuban eta AEBetan egon ostean, Espainiara itzuli zen, eta Bilboko portuaren eraikuntzalan erraldoian murgildu zen 26 urtez (1877-1903). Alfontso XIII erregeak Karlos III.aren Gurutze Handia eta Mutrikuko konde titulua eman zizkion. Ebaristo Txurruka Bilbon hil zen 1917an, 76 urte zituela. <sup>m</sup>

**KURKUDI LIBURU DENDA**

Euskarazko irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
T: 944 913 402

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda



**350<sup>m²</sup>**  
**KIROLERAKO**  
**GUZTIA!!**

URIBE KOSTAKO  
**KIROL**  
**DENDA**

TORRENE 4  
ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA  
TF. 94 491 18 82

# Getxok baditu aurrekontuak

Joan den azaroaren 28ko Osoko Bilkuran **onartu ziren 2004. urterako aurrekontuak**, EAJ, EA eta EBren aldeko botoagaz. Oposizioaren aldaketa-proposamen ugariak ez zuten aurrera egin

Edozein instituziotan izan daitekeen eztabaidarik garrantzitsuenetako bat, ezbairik gabe, aurrekontuei dagokiena da. Getxon azaroaren 28an egin zen 2004. urtekoen gainekoa, eta gobernu-taldeak proposatutakoa atera zen aurrera, PP eta PSEren aurkako botoakaz. Guztira, 90 milioi euro edukiko ditu erabiltzeko Getxoko Udalak datorren urtean, amaitzean dagoen urte honetan baino %27 gehiago.

**Gobernua osatzen** duten hiru alderdien (EAJ, EA eta EBren) gehiengoa nagusitu zen azkenik, eta hala, gobernu taldeak proposatutako aurrekontuak izango dira 2004an Getxok edukiko dituenak. PPK eta PSEk, aurrekontuen osotasunerako aldaketa-proposamen bana aurkeztu ostean, aurka bozkatu zuten. PPK, gainera, 70 zatikako proposamen-aldaketa mahaigaineratu zituen, baina horiek ere ez ziren onartu, eztabaidaren prozeduraren gaineko eztabaida sutsu baten ostean. Gobernuak 70 proposamen-aldaketetatik 20 aintzat hartuko zituela adierazio zion PPri, honek aurrekontuen aurkako botorik ez ematekotan, baina "popularrak" uko egin zioten proposamenari.

Igoera nabarmena 2003koen aldean Onartutako aurrekontuek %27ko igoera daukate aurtengoan aldean. Udal iturriek adierazi digutenez, gobernu-taldeak agertutako helburu nagusiak (bizi-kalitatea handitzea, bizikidetzaren sustatzea, giza desberdin-



Onartutako aurrekontuek %27ko igoera daukate aurtengoan aldean

tasunak gaintzea eta hirigintza-garapen orekatua lortzea) ondo asebeteko dituzte aurrekontuok. Ildo horretan, aipatzekoak dira gizarte-ekintza arloko igoerak, eta batez ere azpiegituren ingurukoa (%35). Hauen artean, Erromoko Nagusien Etxearen berregokitzapena, eta Urgulleko Kultur

## «Gobernu taldearen helburuak ondo beteko dira aurrekontuokaz, Udalak dioenez»

Etxe ohian egin beharreko egokitze-lanak dira azpimarratzekoak Udaletxearen estez. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen aurrekontua ere %7an handitu da.

Aurrekontu berriakaz bultzatu gura diren beste arlo batzuk aipatzearen, kirola (emakumeena batez ere), turismoa, enple-

gua, GKEakaz lankidetzaren eta euskara aipa ditzakegu. Era berean, Kultur Etxeak aurtengoan baino %11 gehiago jasoko du, eta Udal Musika Eskolak, %17. m

### HAINBAT ARLOTAKO AURREKONTUAK

- Hirigintza: 9.200.000 euro
- Ogasuna, giza baliabideak: 7.000.000
- Presidentzia: 3.500.000
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak: 1.122.199
- Ingurumena: 433.000
- Kultura, hezkuntza eta kirolak: 1.011.259
- Euskara: 912.000
- Kultur Etxea: 5.200.000
- Fadura kiroldegia: 4.225.000
- Musika Eskola: 2.100.000
- GUZTIRA: 90 milioi euro (15.000 milioi pezeta)

## Arrakalak direla-eta itxita dago Santa Eugeniako kultur etxea



Santa Eugeniako kultur etxearen inguruan lanak egiten dabilta

**Erromoko** Santa Eugeniako kultur etxean egiten ziren jarduerak beste tokietara aldatu dituzte. Eraikinean agertu diren arrakalak ikusita (ondoan lurpeko aparkaleku bat eraikitzen dabilta), udal agintariak kultur etxeko areto guztiak urtarilerara arte itxita uztea erabaki dute; bertan Euskaltegiaren zenbait eskola ematen ziren, bai eta zenbait arlotako batzar eta jarduerak. Gauzak horrela, Santa Eugeniako eskaintza zabaldu Getxoko Kultur Etxeak.

Xake eta buru-kontrol ikastaroak, arte aplikatuen lantegiak, eta gimnasia, aerobik eta aretoko dantzak Mesedeetako kalean dagoen Areetako kultur etxean izango dira. Halaber, Pagkakaisa elkartearen bilerak, eta

Gizatiar emakume elkartearen antzerki lantegiak eta martitzeneko topaketak Areetako egoitzak hartu ditu. Bestalde, Erromoko Jose Deunaren elizako aretoetan Euskaltegi ikastaro batzuk eskainiko dira. Getxoko Kultur Etxeak ematen dituen euskara ikastaroak, berriz, Erromoko Nagusien Etxera (goizekoak) eta Euskaltegi (arratsaldekoak) eroan dituzte.

Santa Eugeniako egoitza zeukan Hiritarren Arretarako Bulegoak ere atek zarratu ditu; bitartean, berorren zerbitzuen ordez, www.getxo.net udal webgunera, 902 115 500 telefonora, Benturillena kaleko bulegora eta Udaletxera jo daiteke. Kaltetutako auzotarrek ere 94 491 40 80 telefonora dei dezakete. m

## ALDAKETA ARENAS CLUBKO AULKIAN

Laudioren aurka 2 eta 1 galdu ostean, Getxoko Arenas Clubeko zuzendaritza-taldek Gorka Alkiza lehenengo taldeko entrenatzailea bota egin du, "emaitza txarrak direla-eta", Jose Ramon Zubizarreta presidentek azaldu duenez. José Ambrosio Saiz *Pepe Olivares*-ek eta David Movilla Hirugarren Mailako 4. multzoan dabilen taldearen ardura hartu dute orain, eta garaipenagaz estreinatu ere kargu berria, Arenasek Alaves C-ri irabazi zion-eta (2-0). Zerbaki hau itxeko orduan, Getxoko taldeak 14 jardunaldi jokatu ditu, eta hamabigarren postuan zegoen 17 punturekin.



David Movilla, Arenas futbol taldeko entrenatzaile berria, *Pepe Olivares*-egaz batera

## ATHLETIC ETA BARTZELONA ROMO FUTBOL TALDEAGAZ

25. urtemuga ospatzeko egin den egitarauaren barruan, Romo Futbol Taldeko zuzendaritza-batzordeak Gabonetako gazte mailako Txapelketa antolatuko du, eta bertan Athletic eta Bartzelonako taldeek parte hartuko dute. Biak, Romoren filialagaz batera, hilaren 22an (astelehena) jokatuko den hirukoan lehiatuko dira, Bolueko futbol-zelaian, arrastiko 5etatik aurrera. Talde bakoitzak 45 minutuko iraupeneko partidu bi jokatu dituzte, eta puntu gehien lortzen duenak txapelketa irabaziko du. Bartzelona dugu faborito nagusia hirukoia bereganatzeko, Ohorezko Mailan jokatzeko du-eta.

SATISTEGI  
CAFE

# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

## Gaztetxe barik atzera ere

**Joan den abenduaren 1ean** bota zuten azkenik Maidagango garagardotegi zaharraren ondoan zegoen etxetzarra, udaberritik gaztetxe bihurtuta geneukana. Aspalditik egoten ziren gazteak erai-kin horretan, baina benetako gaztetxe iza-era apirila aldean hartu zuen, herriko gazte talde berri bat ekintza sorta batzuk egiten ahalegintzen hasi zenean.

“Kontzertuak antolatzen genituen, eta hitzaldiren bat ere egin zen bertan, baina egia esanda ez zen gauza handirik egiten”, esan digute bertan ibiltzen ziren gazteek, “bestalde, azken asteetan hasiak ginen nahiko gogotsu ekiten”. Asmook ezerezean geratu dira, ordea. Abenduaren 1eko (astelehena) goizean, “bertan genbiltzan gehienok ikasleak gavela eta eskolan geundela baliatuta, bota egin zuten gaztetxea”. Beste kokaleku baten bila dabilta orain. m

Getxoko Basantzen zegoen gaztetxea



### HERRIAN ETORKINEN ERREGISTROA SOR DAITEKE

Getxoko Udaletxea herrian bizi diren etorkin guztien eskubideak bermatzeko bideak aztertzen dabil, bertan eroldatuta ez egon arren. Horretarako, etorkin guztien erregistro bat sortuko lukete; orain, hori egiteko legeak eskaintzen dituen aukerak ikertzen dabilta.

Erregistroa sortzeko behar den informazioa etorkin elkarteetatik eta GK Eetatik lortuko litzateke, ekimenak aurrera egitekotan. Modu honetan, Getxon bizi diren guztiei osasuna edota irakaskuntzaren alorrean eskubide berak aitortuko litzazkieke.

**Iñigo Zulueta** > nekazaria

## Tomate hidroponikoak



Iñigo Zulueta, Gatikan daukan negutegian

**Portu Zaharreen bizi den 34 urteko gazte hau aurtongo urtarilaren batz geroztik dugu nekazari. Gatikako Ugarte auzoan dauka 2.500 metro koadroko lurrik gabeko baratza; izan ere, Iñigo Zuluetak tomateak hazten ditu laborantza hidroponikoaren sistema erabiliz. Xelebrea, ezta?**

—Lehenik eta behin, Iñigo, zertan datza laborantza hidroponikoa?

—Barazkiak lurretik eta sasoiak kanpo landatzea; lurraren orde, landareak perlatxo beteta dauden zakuetan hazten dira, bakoitzak itogina dauka, eta hortik hartzen dituzte elikagaiak. Sistema honek lurra eskaintzen ez dizun laborearen gaineko kontrola ematen dizu.

—Eta dagoeneko zure baratza eman ditu lehenengo tomateak, ezta?

—Bai, 12 tona atera ditugu, eta geratzen zaiguna berogailuagaz mantenduko dugu, abenduan jasotzeko eta urtarilean landare berria landatzeko. Sistema hidroponikoari esker, landare batek urtebete iraun dezake.

—Gerora beste zerbaiteko ladantzeko asmorik bai?

—Negutegia gauza desberdinak hazteko prestatuta dago; tomateagaz hasi naiz, hurbilen daukadan landarea delako, baita esker onekoa ere. Geroago piperrak landatzea gustatuko litzaidake.

—Kilo bat tomate garesti samar dabil azken bolada honetan: hiru euro. Zenbatean daude zureak?

—(Barreak) Nik ere ez dakit ba! Horretarako ere hasiberria naiz. Orain neure lehenengo tomateak Mungiako Garaia kooperatibari ematen nabil, eta gaur egun oraindik ez dut jaso ezta neure lehen faktura ere.

—Kalitatea bermatzen duzu?

—Jakina. Bizkaiko Nekazarien Elkartearen kide izateaz gain, Eusko Labelaren araudia-

### «Dagoeneko 12 tona atera ditugu negutegitik»

ren barruan gaude; hona datozkigu kalitatearen, kontrolaren eta abarren ikuskapenak. Gero, kooperatibaren esku geratzen dira sailkatze, ontziratze, etiketatze eta salmenta kontuak.

—Itzul gaitezen laborantza hidroponikora. Badira gehiagorik Bizkaian?

—Bai, gainera gero eta gehiago, goruntz doa. Hemen lehenengoak orain dela 12 urte inguru egiten hasi ziren; beraz, nahiko berria dugu. Penintsulara Almeriatik sartu zen orain dela urte asko; Holanda da, ordea, sistema honetan punta-puntan dagoen herrialdeetako bat.

—Eta zer dela eta sartu zinen nekazari?

—Zientzia Ekonomikoak amaitzen saiatu nintzen, baina bosgarren mailan konturatu nintzen hura ez zela niretzat. Beti izan ditut lursailtxo bat edukitzeko gogoak, negozio errentagarria ere iruditzen zitzaidan, eta Derioko Nekazaritza-Eskolan ibili nintzen nekazaritza kontuak ikasten. Eta hortik hona. m

## Gabonetako ekitaldi mordoa

Olentzero, Erregeak eta Getxolandia nabarmentzen dira **Getxok Gabonetarako duen eskaintzan**

**Gabonak hemen** bertan dauzkagu dagoeneko, eta ohi denez, makina bat ekitaldi edukiko dute lagun. Olentzero dugu alde batetik; benetan agenda bete edukiko du ikazkin zaharrak, Getxon izango dituen zereginak ikusita. Hasteko, abenduaren 20tik 24ra, berari eskutitza emateko aukera egongo da Algortan eta Areetan, bi-bie-

### «Olentzero: Nik nahi nuke antzezlan bost bider antzeztuko da aurten»

tan Metroko plazan eta goizez zein arratsalde. Egun beretan, Olentzero puzgarria ibiliko da kalerik kale, trikitilari, txistulari eta abarrek lagunduta. Bestetik, *Olentzero: Nik nahi nuke* anzezlan egongo da ikusgai abenduaren 16, 18, 19, 23 eta 24an, Getxoko leku bat baino gehiagotan: lehen lau emanaldiak, hain zuzen, hainbat ikastetxetan egingo dira. Bosgarrena, Getxo Antzokian eta kalejira baten ostean. Horri guztiari, auzoetako Olentzero batzordeek prestatutako ekitaldiak gaineratu behar zaizkio.

Urtarilean Errege Magoak etorriko dira, opari gehiago uztera. Hil horren 5ean, 18:00etan, Getxon hain tradizio handia daukan kalejira abiatuko da. Zati bitan banatutako ibilbidea Andra Mari,



Algorta, Areeta eta Erromotik igaroko da, ume eta ez hain umeen gozamenerako.

Ezin aipatu barik utzi, azkenik, Getxolandia umeentzako parkea. Abenduaren 20tik, Areetako Geltokiko plazan egongo da. Badakizue nora joan! m

### EKITALDI NAGUSIAK

• **Emon egiozu eskutitza Olentzerori.** Abenduaren 20tik 24ra. Algorta eta Areetako Geltokietako plazetan.

• **Olentzero: Nik nahi nuke antzezlan.** Abenduak 23: Geroa ikastolan. 18:00. Abenduak 24: Getxo Antzokian. 12:00.

• **Erregeak.** Kalejira urtarilaren 5ean. 18:00etatik aurrera, Andra Mari eta Algorta. 19:30ean, Areeta eta Erromo.

### HERRIKO 19 MUSIKA TALDEREN ABESTIAK DISKO BATEAN

Algortako Gazte Asanbladak *Esanak Esan!* izenburuagaz argitaratu duen herriko taldeen diskoa dagoeneko kalean dago. Denetariko gaiak jorratzen dituzten 19 abesti, euskaraz zein gaztelaniaz, entzun daitezke bertan: okupazioa, inperialismoa, eskubideen urraketa, indar errepresiboak, politikariak, barneko sentimenduak, pasibotasuna... “*Oro har sistema usteldu honek gazteengan sortarazten dituen arazoak eta kezak*”, aurkezpenean azaldu zuten. Herrian talde asko daudela eta esateko gauza asko daukatela ikusita sortu zen *Esanak Esan!* proiektua: “*CD honegaz taldeei bidea erraztu egin nahi diegu apur bat, eta Udalak gazteekin daukan jarrera ere salatu nahi dugu, taldeei laguntzarik ematen ez dielako*”. Abestiak Santutxuko gaztearen grabatu ziren, eta diskoa finantzatzeko dirua Maidagan etxean egin ziren kontzertuetatik lortu dute. *Esanak Esan!* sare komertzialetik kanpo kaleratzea erabaki dute Algortako Gazte Asanbladakoek, “*geure filosofiarekin koherenteak izateko*”, eta 5 euroren truke eros daiteke, gazteria doan tabernetan, Likinianon eta Euskal Herriko gaztetxeetan.



Diskoa San Nikolas plazan aurkeztu zuten



## GALEA ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
☎ 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

## Vicrilak bere historia jaso du liburu batean

**Lamiakoko Vicrila** enpresak bere historia laburbiltzen duen liburu bat kaleratu du. *Vicrila. Sus hombres y sus hechos* izenburua dauka, eta bertako hainbat langilek eta langile ohiek hartu du parte berorren egikeran, azken erredakzioa kazetari bati egokitu zaion arren. 200 orrialdetan zehar, eta 240 argazkiren laguntzagaz, *Vicrila. Sus hombres y sus hechos*-ek enpresaren 113 urteko ibilbidea gogoratzen du. Hain zuzen, Ibaizabalen alde honetan sortutako lehen enpresetakoa dugu Vicrila. Hasi-eran, beira modu tradizionalan egiten zuten, eta horretarako oso garrantzizkoak ziren putz-egileak. Laz, hain zuzen, bai enpresak bai Leioako Udal-letxeak omenaldia egin zieten Vicrilan ibilitako putz-egileei guztiei, Lamiakoko eskultura bat ipiniz.

1972tik, beira lau egiteari utzi zioten, beste beira mota batzuen ekoizpenari hasiera emanez. Vicrila Durand nazioarteko taldearen zati bihurtzeagaz batera gertatu zen hori. Gaur egun, Durand taldeak Arc izena dauka, eta munduan dauden beirazko produkturik ezagunenetakoa batzuk kaleratzen ditu. Horien artean, Lamiakoko Vicrila zaharrea egiten dituztenak. m



Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburua frontoiaren inaugurazioan hartu zuen parte

## Betiko ametsa beteta

Azaroaren 29an gauzatu zen Leioako Betiko ikastolaren amets zahar bat: **pilotaleku berria**

**Datorren** urteko Ibilaldiaz lotutako ekitaldiek aurrera jarraitzen dute. Azkenekoetakoa, Betiko ikastolaren pilotaleku berriaren inaugurazioa izan zen, azaroaren 29an. Besteak beste, Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburua, Koldo Tellitu Betikoko eta Partaide ikastolen elkarteko presidentea, eta politikaren, kirolaren eta kulturaren eremuetako hainbat ordezkari egon ziren bertan.

Imanol Agirre pilotari profesionalari egokitu zitzaion lehen pilotakada ematea, eta ikastolako guraso bati erretoa egitea. Ostean, Koldo Tellituk adierazi zuen pilotaleku berria *"betidaniko ametsa"* zela Beti-

korentzat, *"baina zoritxarrez, ikastolen publikotze garaiko egoeraren gogorrik bizinaupena bera bihurtu zuen Betikoren helburu nagusi, eta horregatik ezin izan da orain arte pilotaleku berria eraikitzeko asmoa bete"*.

### Babes zabala

Betikok azken aldian jaso duen *"babes zabala"* azpimarratu zuen Tellituk: *"Ikasle kopurua bikoiztu egin dugu, eta bestetik, Ander Deunagaz batera Ibilaldia 2004 antolatzeak pilotaleku hau eraikitzen lagundu digu"*. Azkenik, eskerrak eman zizkien ikastolen hezkuntz-ereduaren alde ekin dutenei. m

## Guillermo Bilbao > Leioako Kirolzaleak-eko presidentea Herri kirola bultzatzen



Guillermo Bilbao orain 30 urte ezkondu zen Leioara

**Leioako Kirolzaleak** elkartea orain dela hogeitabost urte-edo sortu zen: Guillermo Bilbao da gaur egun presidentea, baina ezin izan digu sorrera data zehaztu, *"ez deku dokumenturik eta"*. Euskal herri-kirolak bultzatzeko sortu ziren, *"galdu ez deitezen"*, eta apurka-apurka asmoak gorputza hartu zuten: *"Akabun formaliza egin gintzen"*, dio Bilbaok, *"estatutokaz eta dana, eta oin horretara dedikaten gari"*. Euren lana, zehatz esanda, herri-kirol saioak kudeatzea da batez ere.

Beste zeregin bat ere badaukate ordea: harrijasotzaile eskola. *"José Ramón Aretxabaleta algortarra da maisua"*, diosku Bil-

baok, *"eta bost ikasle dekuz, 10 eta 18 urte artekoak"*. Sokatira taldea ere eduki zuten baina... *"Jende gixi deku"*. Beharrik handiena antolakuntzan daukate: *"Gure dauenak esaten dotsegu zenbat kobraten dauen deportista bakotzak. Gero, deportisteri deitzen dotsegu, dena debalde. Diru duzti deportistentzako da, guk ez du ezer kobraten, eta pozik"*. Bilbaok dioenez, ez daukate lan handirik, *"baia hil baten igual bai"*. Zelangura, Leioan antolatzen diren herri-kirol emanaldi guztiak eurek antolatzen dituzte, eta gainera herriko Nekazal Azokaren ardura ere euren da. m

## METROKO ALBOKO APARKALEKUA, MERKEAGO

Garraibideen Partzuergoak Metro geltokiaren alboan dagoen aparkalekuko prezioa merkeagoz erabaki du. Orain arte, lehenengo zazpi orduak 65 zentimoan ordaintzen ziren, eta hemendik aurrera zazpi ordutik gorako egonaldia ere prezio horretan ordainduko da (lehen, euro erta erdian zegoen). Neurri honegaz, aparkalekua erabiltzea bultzatzen gura da. Izan ere, ireki zutenetik erabilpena %50ekoa baino ez da izan. Erabiltzaile askok esan dutenez, euren lanaldiak zazpi ordu baino gehiago irauten du, eta horregatik gehiago ordaindu behar izaten zuten. Horrek jende askok aparkalekua ez erabiltzea ekarri du.

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -  
**Lacofris, s.L.** SERVITEC  
 Y MARKA GUZTIAK  
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA  
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA  
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

etorri eta ikusi!!  
**ORIXA**  
 liburudenda  
 Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
 Tfn.: 94 491 23 79  
 Algorta

BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

Sarrikobaso 15



**amesti 7sl**

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06  
 48990 ALGORTA

**ERROTULOAK**



ERA GUZTIETAKO  
**ERROTULOAK**  
 egiten ditugu

Iparagarre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo**  
 taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
 T: 94 463 00 45 - LEIOA



# Ibai ertzeko aurpegia aldatzen doa

XIX. mendetik aurrera Erandio ibaiari begira bizi izan da batez ere. Bilboko portuaren inguruan sortutako zerbitzu industriar lan egiten zuten erandioztar askok, buietan, garabietan, atoi-ontzietan, bazterretako untzioetan, portu zerbitzuetan eta abar...



Hala ere, XX. mende erdiko industrializazio prozesuak kimika eta metalgintza industria erakarri zituen herrira, eta ibaiko urak kutsaturaz betetzen joan ziren, eraikin altuak hazi ziren hirigunean eta erandioztarrok bizkarra eman genion ibaiari. Laurogeiko hamarkadaren krisiak ibai bazterreko industria pabiloiak hustu zituen, instalazioak zaharkiturik. Azken urteotan, berriz, berrikuntza nabarmenak egiten ari dira pabiloi zahar horietan: batzuek kanpoaldea besterik ez dute aldatu; beste batzuek, berriz, bota eta berreraiki egin dira osoan. Pabiloi berri hauetan sartzen diren enpresek industria prozesuetan baino gehiago



Azken urteotan berrikuntza nabarmenak egiten ari dira lehengo pabiloi zaharretan

zerbitzu sektorean jarduten dute. Argazkietan ikusten denez, Erandiok ibaiari begira agertzen duen aurpegia aldatzen doa pixkanaka.

Aldaketa erabatekoa izan dadin, ibai ertzeko kaminoari, beharbada, ordezko bideak eskaini beharko litzaizkioke... m



## IRITZIA >

### GABONAK IRISTEAR DAUDE

Gabonak gainean ditugu: hasi gara prestaketan eta dagoeneko kaleak eta dendak gabonetarako girotu dira. Umeentzat, Olientzerori eta Errege Magoei opariak eskatzeko garaia da; helduentzat, ordea, kontsumo garaia da, eta azkenik, beste talde murriztatutako garai erlijiosoa eta familiarekin egoteko.

Gabonak, Kristau aroan, 274. urtean hasi ziren, Aureliano erromatar enperadorearen eskutik; berak zioenez, abenduaren 25ean jaio zen eguzkia. Laugarren mendean geroztik, Eliza Jesusen jaiotza ospatzen hasi zen egun horretantxe. Bestalde, 377. urtera arte, Eguberria eta Errege jaia egun berean ospatzen ziren, baina geroztik banatuta ospatzen dira, lehenengoa abenduaren 31n eta bigarrena urtarrilaren 6an.

Bitxikeriak albora utzita, gizarte arloko adituen arabera, orain dela 20 urtetik hona kontsumorako garai bihurtu dira Gabonak, eta ondorioz, zeuden ohitura guztiak galtzen ari dira, bai Afrikako eta Amazonietako tribuek ospatzen duten eguzkiaren jaiotza, bai Jesusen jaiotzaren ingurukoak.

Gabonak iristear daudenez, urte osoko kontsumoa alde batera utzi eta lehengo ohiturak bete dezagun. Ohitura eta kultura ez galtzeko. 4

Izaro Etxebarria

Erdoitza Gorrotxategi > prentsa banatzailea

## Kale gorrian

1.200 aldiz luzatzen du goizero eskua, irribarrea ahoan duela, Erandioko metro geltokiko ate ondoan. Berak banatzen du, goizeko zazpitan hasi eta bederatzia aldera arte, *El Nervión* egunkaria



Erdoitza Gorrotxategi

Goizeko ordu horietan metroa erabiltzen dugunontzat aurpegi ezaguna da berea. Gero, aupaka eta agurka jarraitu behar du egun osoan kaletik.

Lan honetan dabilenetik argi ikusten du jendearen aldarrean zelako gorabeherak izaten diren egun batzuetatik besteetara. *“Jendearen aurpegikera askoz ilunagoa izaten da astelehenetan eta opor ostean”*. Ostegunetan kopeta arintzen hasi eta ostiralean alaituago joaten omen dira metroaren erabiltzaileak euren zereginetara. Zergatik ote aldaketa nabarmen hori?

Dioskunez, neguan arropa piloa janzten du soinean, baina bat ere sobran ez ei dauka, sarrera ondoko giroa nahikoa pe-

trala da eta: *“Trenen joan-etorriak kristoren korrientea sortzen du eta hasieran ate aurrean jartzen nintzenez, berehala gaixotu nintzen, lumbagoak jota. Orain ikasi dut eta ate ostean egoten naiz”*.

Geltokiko atean ezagutzen duen jendearekiko harremana azalekoa bada ere, atsegin egiten zaio, sarridan ematen dizkiote gozokiak edo txikleak, eta behin, pudin bat ere oparitu zioten: *“Emakume batek poltsa bat utzi zidan besterik ezer esan gabe eta pudin bat zen. Ez dut berriro ikusi emakumea. Hura izan zuen, antza, ordu horretako eguneroko bidaia egiten zuen azken eguna”*.

Baina batzuek nazka ere eragin diote. 50 urte inguruko gizonezko batek, esaterako, eskua ukitzen zion eguneroko, egunkaria hartzeko aitzakian, hari eta aurrean jarri eta bere eskua ukitu barik ere har zezakee-

### «Jendearen aurpegikera askoz ilunagoa izaten da astelehenetan eta opor ostean»

la esan zion arte. Harrezkero gizon horrek ez dio berriz kazetarik eskatu Erdoitzari.

Horixe da Erdoitzaren goizeko lehen orduetako bizimodua, xentimo batzuk irabazteko aukera ematen diona. Gero, Nekazaritza Eskolara doa ikasle. Basozaintza, lorezaintza eta antzekoak ditu gustuko eta horretan lan egin nahi luke. m

## BERTSO-JIRA

Urteroko ohiturari jarraituz, abenduaren 26an bertso-jira mundiala izango da Erandion, Berbotsek antolatua. Aurtengo ekitaldirako Sebastian Lizaso eta Fredi Paia aukeratu dituzte tabernaz taberna bertotan aritzeko. Gogotik saiatu beharko dute iazkoa hobetzeko; izan ere, iaz Fredi Paia eta Andoni Egañak saio bikaina eskaini zuten eta giro aparta lortu, Roberto eta Keparen trikiti eta pandero doinuek lagunduta. Aurtan ere bertan izango dira trikitalariak. Hitzordua: iluntzeko zortzi eta erdietan, Plaza tabernan (Udaletxe aurrean)

## EUSKARAZ LARDASKATZEKO MANERAK IKUSKIZUNA

Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta eta Antton Olariaga euskaraz lardaskatzeko manerak azaltzen saiatuko dira Astrabuduan eskainiko duten umorezko hitzaldian. Euskararen jatorriari buruzko teoriak, telefonoz mezuak bidaltzeko laburdurak, euskaraz ligatzeko hiztegi praktikoa, eta beste hainbat kontu ekarriko dituzte. Ekitaldia Josu Murueta kultur etxean izango da abenduaren 18an, 20:00etan.

## NAZIOARTEKO XII. XAKE TXAPELKETA

Abenduaren 20tik 28ra jokatu da, Bekoa ikastetxearen lokaletan, Sociedad Polideportiva Erandio elkarteak antolatutako gabonetako xake txapelketa. Bizkaian tradizioz handiena duten txapelketen artean aipagarri da Erandiokoa, eta bertan izango dira nazioarteko Maisu Handiak eta Euskal Herrian kirol honetan onenak direnak. Abenduaren 19ra arte egongo da zabalik izena emateko epea.

Telefonoak: 94 467 28 12 eta 94 460 54 77

cianoplan s.a.  
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
tfnoak: 944 64 90 87  
944 64 86 91  
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

## Hirugarren Munduari laguntzen

**Azken** urteotan, Sopelanako Udalak diruz lagundu dio Euskal Fondoa izeneko elkarteari; honek garapen-bidean dauden herrietako bake, demokrazia eta elkartasun prozesuetan udal erakundeentzako partaidetza bultzatzea dauka helburu. Elkarre horren proiektuen jomuga Erdialdeko Amerika eta Sahara ditugu. Ildo horretatik, Udalak aurrekontuen %0,7a mota horretako ekintzetarako zuzentzen du, eta aurton Nikaraguako Somoto herrian zahar-etxe bat eraikitze-ko erabili diren 30.000 euro bidali dizkio Euskal Fondoari.

Gainera, Udala Sembrando Futuro GKEagaz harremanean hasi da aurton; Jose Maria Sáez sopoloztarra kide daukan erakunde horrek Hondurasko Guanchías herrixkan eskola bat eraikitzen lagundu du. Bestalde, Sopelanaren gaineko Triviala dagoeneko salgai dugu 3 euroren truke; bildutako diruagaz edukiontzi bat erosteko asmoa dago, eskola horretara bidaliko diren eskolartresnak jasotzeko. Triviala erosi gura dutenek ikastetxeetan, liburutegian eta Udaletxean edukiko dute eskura. m

**«Udaletik 30.000 euro Euskal Fondoa elkarteari, Nikaraguan zahar-etxe bat eraikitzeko»**

## Etorkizunerako planak Lurralde-Plan Partzialak Sopelanarentzat aurreikusi duen zenbait proiektu



Uribe Kostako autobia inguru hauetaraino hel dadin aurreikusi du Lurralde-Plan Partzialak

**Alderdi** politiko sopoloztarrek badaukate Bilbao Metropolitanoko Lurralde-Plan Partzial berriaren txostena. Ingurumenaren eta azpiegituren antolamendua udal ikuspegiak bateratzea dauka helburu nagusi. Plan horrek Sopelanarako aurreikusi duen proiekturik garrantzitsuenetariko bat Parke Metropolitanoa dugu, Zientoetxeko lursaila itsasoraino hartuko lukeena; natura gunek babes-teko sortu gura duten "sare berdearen" zati izango litzateke, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuak osatua.

Etxebizitzari dagokionez, gaur egungo kopurua gutxienez bikoiztu egingo dela uste da, eta horrek zenbait ingururen masifikazioa eta beste berri batzuen garapena ekarriko luke; beraz, epe ertainera Arau Subsidiarioak

ere aldatu beharko lirateke. Plana aurrera aterako balitz, babestutako 4.000 etxebizitza eraikiko ei dira. Bestalde, Jarduera Ekonomikorako lurzoruen gainean, oraingo gunea gordetzeko asmotan dabilta, baina 3 hektareatik gorako hedadura izango duen berri bat garatuko litzateke Ganebarrin.

Biztanleriaren gorakadak azpiegiturak hobetzea eskatzen du, eta ildo horretatik, ekintza garrantzitsu bi aurreikusten dira: alde batetik, Uribe Kostako autobia Sopelanaren eta Berangoren arteko mugaraino heltzea; eta bestetik, Unbeko Korridorearen amaitzea. Diputazioak epea luzatzea onartzen badu (hala eskatu diote-eta udal agintariak), urtarilean aurkeztuko dizkiote Sopelanaren ikuspegi eta argudioak. m

Aritz Larrinaga & David Pérez > bodyboard-eroak

## Munduko onenen artean Aterioak itsasoan, lagun minak lehorrean



David Pérez eta Aritz Larrinaga sopoloztarrak, aurrez aurre, pultsua egiten

**Arrietarako** hondartzan hartu gintuzten 23 urteko Aritzek eta 25eko Davidek. Alkarregaz hasi ziren bodyboard egiten orain dela 10 urte inguru, eta denbora horretan Europako eta munduko txapel-dunak izatea lortu dute biek; gaur egun, kirol horretako nazioarteko elitean daude.

Lagun minak diren arren, euren artean lehiatu behar izaten dute txapelketa askotan. Baina badakite adiskidetasuna eta norgehiagoka ondo bereizten: "Lehiatzen nago-enean ez dut Aritz ikusten lagun moduan", zioen Davidek. "Niretzat -gaineratu zuen Aritzek- David erreferentzi puntua da; hobetu gura badut, arretaz begiratzen diot".

Surfaren eta bodyboard-en arteko desberdintasunak ere azaldu zizkiguten, ez daukate-eta antz handirik, kirol biak itsaso-

an eta ohol bategaz egiten diren arren. "Bata zutik egiten da eta bestea etzunda", laburtu zuen Davidek. Bodyboard-eroek surfariakak daukaten harremana ez ei da samurra izaten: "Ez gainuzte errespetatzen, eta goitik begiratzen gaituzte. Orain gauzak aldatzen doaz, baina lehen izugarria zen...".

Elkarrizketa hau egin genuenean, egun gitxi falta ziren Aritz eta David Portugalera joateko; Europako zirkuituaren azken proban parte hartu behar zuten abenduaren hasieran, eta txapeldun postuak jabea bazeukan ere, bigarren edo hirugarren postua lortzeko aukera zeukatela aitortu ziguten. Ondoren, Hawaii daukate zain, urtarileko 5etik 14ra arte egingo den munduko zirkuituaren azken proban lehiatzeko. Zorte on, Aritz eta David! m

### SOPELANA "BIZKAIA EUSKAL KOSTALDEA"-REN KIDE

Bizkaia Euskal Kostaldea izeneko erakundearen partaide dugu Sopelana, kide berrizat onartu berri du-eta udalari bizkaitarren elkarte horrek. Herria kanpoaldera zabaltzeko asmoaren barruan, Udala euskal kostaldea sustatzen dabilta erakundeak eta elkarteak ipini zen harremanean; horrela, bertako Informazio, Komunikazio eta Turismo sailak Bizkaia Euskal Kostaldea-ra jo zuen, eta kide izatea eskatu zion. Sopelanaz gain, Getxo, Plentzia, Gorliz, Portugalete, Bakio, Gernika, Bermeo eta Mundaka herrietan osatzen dute gaur egun erakunde hori. Bai gurean bai atzerrian antolatzen diren turismo ferietan Bizkaiko kostaldea ordezkatzeko dauka helburu.

# BEHIN BATEAN

## LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA  
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

## GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
T: 430 22 13 T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

## 4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**SPL BAR ESPUELA**  
**ITURRIBIDE**  
BILBO  
• PINTXO GORO-GORROAK  
• OSTEGUN KULTURALAK  
• ASTEBURUTAN MARTXOLA  
• TELEFONOA: 944150565  
• ITXURALDATURIK. HATOR.  
ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

## Ugari supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00  
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

▲▲▲▲▲▲▲▲

# LAIKAK

## Taberna

Zorionak eta urteberri on sopoloztar guztioi!!!

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

▲▲▲▲▲▲▲▲

Cosme Naveda > herriko medikua

## “Harrera ona daukat bertokoeekin”

Cosme Naveda, **Berangoko familia-medikua** orain 20 urtetik, Bizkaiko Sendagileen Elkarteko presidentea da aldi berean

Hogei urte dira Cosme Naveda bilbotarra Berangokoen osasuna zaintzera ailegatu zela. Orduetik, Berangon izan du bizilekua (orain Algortan bizi bada ere), kontsultategi pribatua ere ireki du bertan, eta gainera Bizkaiko Sendagileen Elkartean buru-belarri jardun azken hamalau urteotan, 2001eko martxoetik, zer eta presidente modura. Ez da curriculum makala.

**Beharrez gainezka** dabil gizona, eta ez da gitxiagorako. Medikua lanaz gain (eta hori bikoitza du, Osakidetzakoa eta bere kontsultategi pribatukoa), Cosme Naveda Bizkaiko Sendagileen Elkarteko presidentea izan da azken urte bi eta erdian. “Gure lana, elkartean, medikuon jardunbide profesionalaz arduratzea da batez ere”, azaldu digu, “bestela esanda, medikuek irizpide etiko eta deontologiko jakin batzuen arabera lan egiten dutela bermatzea”.

Ez da oso arrunta herri txiki bateko familia-mediku bat Sendagileen Elkarteko presidentea izatea, baina Navedak lortu egin du. “Egia esan, ospe handikoak izan obitza beti horrelako karguak eurenaganatzen dituzten espezialistak, ospitaletakoak eta abar”. Oso




Cosme Naveda, Berangoko Osasun Egoitzan daukan kontsultategian

gitxi dira Naveda bezala apaltasunetik mediku elkarte bateko presidente izatera ailegatu direnak. Espainiar estatuko probintzia handiei dagokienez, “ni neu bakarri”. Hala ere, “beharbada elitista” den joera hori aldatuz doala uste du Navedak.

### Lanerako denbora bila

Hainbeste lan egiteko, bere aisialdiari lapurtu behar izaten dio denbora. “Eta jai egunei,

familiagaz egoteko daukadan denborari, batzuetan loari ere bai...”. Hala ere, pozik dabil, gustura. Batez ere Berangoko beharragaz. “Urte asko dira hemen nagoela, eta denak ezagutzen ditut. Nire guixoak batez ere, jakina. Aurrekoan, neska baten semea sendatzen ibili nintzen, eta gogora etorri zitzaidan neska hura ere, artean umea zela, sendatu egiten nuela”. Beraren ustez, “jendeak iritzi ona dauka nitaz, eta nik ere oso harreman ona daukat hemengo guztiakaz”. m



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m<sup>2</sup>ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

**Zatoz!**

## Gabonetako ekitaldiak

Ekitaldi ugari egongo dira herrian datozen egunotan, **umeen gozamerako** batez ere

**Badatoz Gabonak** eta eurakaz batera hainbat ekitaldi. Berangoko Kultur Etxeak egitarau berezia prestatu du data esanguratsu horietarako, batez ere umei zuzenduta. Hala, txikienentzako zinema egongo da abenduaren 22an, 26an, 30ean eta urtarrilaren 2an. Filmak erakustaretoan emango dira, goizeko 11:00etatik aurrera. Goizez izango dira Gabonetako lan-tegi bereziak ere (makillajea, divermagic...), abenduaren 26an, 30ean eta urtarrilaren 2an.

Bestetik, Bilboko Gabonetako Haur Parkera joateko irteera antolatu du Kultur Etxeak 14 urtera arteko berangoztarrentzat. Abenduaren 29an izango da hori, eta izena emateko epea hilaren 19an amaitu-

ko da. Irteera goizeko 9:30ean izango da, Kultur Etxean, eta itzulera 17:30ean.

Urtarrilaren 3an, berriz, Gabonetako jaiak egingo da ludotekan.


17:00etatik 20:00etara irauango du, eta jokoak, musika, opariak eta abar edukiko ditu.

Azkenik, Euskalduna jauregian burutuko diren Gabonak 2003 jardunaldieta-ira irteera bi egingo dira.

Lehena, abenduaren 30ean, *Peter Pan* musika-ikuskizunera, eta bigarrena, urtarrilaren 2an, *Marix*e euskarazko txotxongilo eta dantza emanaldi-

ra. Argibide gehiago jaso daiteke Kultur Etxean:

94 668 21 43



**aldai**

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**VASA**  
20º ANIVERSARIO  
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA


Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**



**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**Taberna Bern**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**Ajuria**  
taberna



Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**

**JATEKO**



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

## [herriak]

### PLENTZIA Auzia Plentziako abanikoan



Hasikeran uste baino etxe gehiago eraiki nahi dira inguruan

**Txipio Bai** elkarte ekologistak administrazioari auzi-errekurtsoa aurkeztu du Abanikoan 140 etxe eraikitzeko baimena eman duen Udaletxearen azterketa baten aurka. Zehatzago esateko, itsasadarraren ertzean egin gura dituzten 61 txaletak direla-eta aurkeztu dute Txipio Baikoek errekurtsoa. *“Legeak dioenez”,* azaldu digute, *“20 metroko zortasun-zona egon behar da itsasadarraren inguruan. Horrek, besteak beste, 20 metro horietan ezin eraikitzea dakar ondorioz”.* Ekologistek salatu dutenez, eraikitzaileek legearen hitza errespetatu dute zentzu hertsian, baina ez

izpiritua. *“Etxaurreak 20 metro horien mugan kokatu gura dituzte, baina lehenik zortasun-zonako 15 metro hondatu dituzte, zimenduak egiteko”.* Lanen ondorioz, bertan zegoen landaredia desagertu egin da, salatu dutenez.

Ekologistek dagoeneko eginda daudden etxeetako biztanleen kidetza aurkitu dute. Horiek diotenez, *“bertan 32 etxe bakarrak egongo zirela hitz eman ziguten, eta hana non beste 61 paratu gura dizkiguten pare-parean. Basakeria hutsa da”.* Bizilagunek iragarri dutenez, Txipio Baigaz batera jardungo dute lanak eragozteko. **m**

### BARRIKA Gabonetako III. Tenis Txapelketa

**Barrikako** Abaroa tenis kirol taldeak hilaren 20tik 28ra bitartean egingo den Gabonetako III. Tenis Txapelketa antolatu du, kimu eta haurrentzako mailetan (10-11 eta 12-14 urte bitarteko umeak, hurrenez hurren). Txapelketa Abaroa kirol taldeko bazkideak diren umei dago zuzenduta soil-soilik, mutilei zein neskei, *“teoriaz eta eskolez gain, lehiatzen ere ikasi*

*dezazen”,* antolatzaile batek dioskunez, *“eta partaide bakoitzak partida bi gutxienez jokatu abal izango ditu”.* Barrikako Gabonetako Tenis Txapelketaren hirugarren aldi honetan *“30en bat tenislari gaztetxo ibiliko dira”.* Argibide gehiago gura izanez gero, antolatzaileak harremanetan ipintzea besterik ez da behar, **607 669 073** edo **655 709 693** telefonoetan. **m**

# Abenduak 18-31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [aldizkaria@euskalnet.net](mailto:aldizkaria@euskalnet.net) • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

## [agenda]

### ANTZERKIA

#### ERANDIO

► **Klaketa.** Altagako kiroldegian. Abenduak 26, barikua. 19:00. *Hortzmuga* taldearen eskutik.  
► **Olentzero eta kuttun magikoa.** Altagako kiroldegian. Abenduak 27, zapatua. 13:00.

### ERAKUSKETAK

#### BERANGO

► **Isabel eta Rosa María Calleren olio eta pastelak.** Erakustaretoan. Abenduaren 30era arte.

#### ERANDIO

► **Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalaren argazki erakusketa.** Bekoa ikastetxean. Abenduak 19, barikua. 18:00.

#### GETXO

► **Euskadiko Irudigile Elkartearen erakusketa.** Algortako erakusketa aretoan. Abenduaren 30etik urtarrilaren 10era arte.

#### PLENTZIA

► **Aloña Aranaga: eskuz margotutako zetak.** Goñi Portalen. Abenduaren 30era arte.

### IRTEERAK

#### BERANGO

► **Euskadiko selekzioaren partidura.** Abenduak 27, zapatua. Izen ematea 22ra arte, Kultur Etxean.

#### ERANDIO

► **II. Irteera Herrikoia Erandioko Baselizetara.** Abenduak 28, domeka. Antolatzailea: Atxazpe Mendi Taldea.

### LEHIAKETAK

#### PLENTZIA

► **I. Olentzero Ipuin Lehiaketa.** Lanak emateko azken eguna: abenduak 22. Arauak Goñi Portalen (94-677 55 41) edo [kultura.plentzia@bizkaia.org](mailto:kultura.plentzia@bizkaia.org)

### MUSIKA

#### ERANDIO

► **Gabonetako kontzertua.** San Agustin elizan. Abenduak 22, astelehena. 20:00. *Altzaga* abesbatzaren eskutik.



► **BIOTZ ALAI** ETA **OLATZ GORROTXATEGI**

**Berria egunkariaren alde, musikaz blai**

Beriaren aldeko Getxoko Herri Batzordeak aurtan sortutako euskarazko egunkariaren aldeko kontzertua antolatu du. Abenduaren 19an egingo da (20:00etan), Getxo Antzokian, eta Olatz Gorrotxategi soprano algortarra eta Biotz Alai abesbatza izango dira entzungai, Javier Oyarzabal zuzendaritzapean. Sarrerak 10 euro balio du, eta Villamonteko Kultur Etxean edo BBKko kutxazainetan eskuratu daiteke.

- **Non:** Getxo Antzokia
- **Noiz:** Abenduak 19, barikua
- **Ordua:** 20:00
- **Sarrera:** 10 euro

► **Gabonetako kontzertuak: Albaraka, Urretxindorrek eta Jose M<sup>o</sup> Arregi abesbatzak.** San Lorenzo elizan. Abenduak 26, barikua. 20:30.  
► **Laredoko Salvé abesbatza.** San Lorenzo elizan. Abenduak 27, zapatua. 20:00.  
► **Jatorri abesbatza, Bilbo Argia otxotea eta Abots Alai abesbatza.** San Lorenzo elizan. Abenduak 29, astelehena. 20:00.

#### GETXO

► **Gabonetako kontzertua: Gabonak munduan.** Erromoko San Jose elizan. Abenduak 20, zapatua. 20:00. *Ondarreta* abesbatzaren eskutik.  
► **Itxartu abesbatza.** Getxoko Andra Mari elizan. Abenduak 27, zapatua. 20:00.

#### GORLIZ

► **X. Gabonetako Kantaldia.** Elizan. Abenduak 20, zapatua. 19:30. *Lirain* eta *Lirain Txiki* abesbatzen eskutik.

### ZINEMA

#### BERANGO

► **El señor de los anillos: las dos**

**torres.** Erakustaretoan. Abenduak 30, martitzena. 11:00.

#### GETXO

► **La caja 507.** Areetako Gran Cineman. Abenduak 18, eguena. 20:00.  
► **Malabana.** Getxo Antzokian. Abenduak 19, barikua. 22:00.  
► **In this world.** Getxo Antzokian. Abenduak 26, barikua. 22:00.

#### PLENTZIA

► **Impulsos.** Goñi Portalen. Abenduak 19, barikua. 22:00.

**hamaika bide**

1	Kafe Antzokia Bilbo
2	Kafe Antzokia Ondarroa
3	Ondarroako Arrigorri itsas ostatura
4	Algara konpartsa
5	Zaparrada Gaztegunea
6	Oigetan Umeegunea
7	Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak
8	Bakaikuko etxea
9	Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10	Zenbat Gara aldizkaria
11	Gara argitaletxea

**zenbat gara** elkarte

San Vicente 2  
4. solairua  
48001  
94 423 75 91

[albuma]



Asisko Urmenetak eta Kike Amonarrizek euren *Euskaraz lardaskatzeko* manierak aurkeztu zituzten



Getxo Antzokia leporaino bete zen *Kutsidazu bide Ixabel* antzezlanaren ikusketako



Herriko euskaltzelen arteko olimpiadak jokatu ziren abenduaren 3an



Erromeria egin zen abenduaren 3an San Nikolas plazan

# Euskararen jardunaldiak

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen da. Horren harira makina bat ekitaldi, hitzaldi, musika emanaldi... antolatzen dira eskualdeko herri gehienetan. Guk aurten Getxon euskalgintzan diharduten kideek antolatu dituzten ekitaldi horietako batzuk (gehiago ere egin ziren) dakarzkizuegu orrialdeotara.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



*BIZIKI* eta *Euskaraz gaia* hartuta berba egin zuten txirrindulariek



Umeentzako ludoteka ere antolatu zen



Bertsok munduko doinuekin uztartu zituzten Jon Maiak eta bere lagunek



Joxi Arakama euskara teknikariak, Inaki Zarraoa alkateak eta Kike Amonarrizek Euskara Biziberritzeko Getxoko Plan Nagusiaz jardun zuten



Kirmen Uribek, Bingen Mendizabalek, Mikel Urdangarinek eta Rafa Ruedak *Zaharregia, txikiegia agian* ikuskizuna eskaini zuten



Pilotariak eta bertsolariak aldi berean aritu ziren



[berbetan]

Bere 13. diskoa aurkeztu berri du Ruper Ordorika kantari oñatiarrak, *Kantuok jartzen ditut* izenekoa. Gustura dago Ruper, bere formula aurkitu duela eta, jazzaren auzo mugetatik datozen musikari amerikarren laguntzaz. Gurean entzuleria fidela du eta kanpoan duen itzalak eman dio euskalduna izatea zein nekeza den konturatzeko aukera. Diskoa kokatzen den tes-tuinguruaz, munduko hiritartasunaz eta euskalduntasunaz hitz egin dugu elkarriketa politiko xamarrean.

# Ruper Ordorika

## Kantuok ekarpen

Testua: **Javi Zabala**

—Disko honetan kantuek euren diment-sioa hartu dutela eta, pozik ei zaude.

—Nire kantuek esaten didate oso pozik daudela. Beharbada hurrengoan bestela egingo dut, baina disko honekin lasaitasuna aurkitu dut. Ez dakit prozeduragatik edo ondorioagatik den, baina disko honetan prozedura da izan da garrantzitsuena.

—Nola izan ohi da prozesu konpositibo hori?

—Zoritxarrez, oso metodo gutxiko pertsona naiz eta ahal dudana moduan ibiltzen naiz gauzak prestatzeko. Baina normalean kantuek neure kasa egiten ditut, bakarrik. Gero norbaiti erakutsi, gero egiturekin saiatzen naiz, tonuak erabakitzen... Ostein, musikoak datozenerako idatziak eta ondo tajutuak edukitzen ditut baina badaezpada ere ez ditut erabat ixten, irakurketa unean unekoa izan dadin. Aurreko diskoetan estudioan sartzerako xehetasun guztiak erabakita egoten ziren. Bat-batekotasun neurri horrek nire kantuei on egiten dien irudipena daukat orain.

—Korrontetik at ibili zinen 80etan (kantautoreen gainbehera, rock radikala). Gaur egun, esan daiteke aurkitu duzula zure kantagintza gustura kokatzeko giro musikal eta estetiko bat?

—Ez dakit. Egia da kantuan hasi nintzenean bestelako giroa zegoela, kanturako joera gutxi zegoen. Guztiz ez zen desagertu, rock

radikalak ordezkatu zuen, gehienak kantuan oinarrituriko taldeak baiziren. Aski bakarrik egotea tokatu zitzaidan baina ez pertsonalki, lagun gehienak rock horretan ibiltzen ziren, eta behin ere ez nuen nire burua giro horretatik berezia ikusi. Orain, berriz, ez dakit lortu dudana edo jendeak eman didan esparrua. Uste dut nire konpromisoa eta pasioa berdinak direla hasi nintzenetik baina nire ingurukoak aldatu dela.

—Estetika bat bilatu duzu?

—Ez kontzienteki behinik behin. Lehengo galderara etorritik, lehenengo diskoa 80an egin nuen, artean erabat ezezagun zen Bernardo Atxaga baten testuekin. Bigarrenean estrainekez sartu nituen Joseba Sarrionandia zelako baten lehendabiziko testuak.

### “Munduko minoria guztientzako oso sasoi ilunak dira”

Idazle horiek urteen poderioz ikaragarritzko itzala zabaldu dute Euskal Herriko letretan. Horrekin esan nahi dut orduan nonbait baginela eta horrek bere ondorioak ekarri ditu; gauza bera esan daiteke ere nire hautaketa musikalez. Sasoi horretan beharbada ardatzen bat aurkituko genuen, eta hori landuz honaino etorri gara.

—Euskaraz kantatu arren, espainiako musikazale zirkulu zenbaitetan onarpena irabazi duzula dirudi. Ez ote du euskaraz kan-

tatzen duenak horrelako zozer berezia egin behar onarpena jasotzeko?

—Uste dut onespren hori aspaldi irabazia daukadala zirkulu horietan, kontrakoa esatea gezurra litzateke. Baina euskaraz kantatuz gero —orain Madrildik etorri berri naiz eta nire inpresioa ez da aldatu— berezien sailean sailkatzen zaituzte, egiten duzun musika egiten duzula.


—Egoera jakin bategatik aurreratu duzu disko honen sorrera, nolabait beharrian sozial edo politiko batek bultzatuta?

—Bai, batzuek interpretatu dute diskoaren gaia hori balitz bezala, baina diskoa ez dago politizatuagoa inondik ere. Egia da gertatu diren gauza batzuek bultzatu nautela horretara, baina ez dira mobilizazioak izan, aski

gauza pertsonalak baizik: lagun arteko eztabaida bat edo Madrillgo lagun batekin hitz egiteak. Egoera horretan absurdoa litzateke isilik egotea. Uste dut aurten oso gauza garrantzitsuak gertatu direla, ez bakarrik gurean. Munduko minoria guztientzako oso sasoi ilunak dira.

—Madrilera zabilta sarri. Zeuk ere Medem filma egitera bultzatu duten jarra berdinak somatu dituzu bertan?

—Beharbada bai, baina gu euskaratik ga-



“Euskaraz kantatuz gero berezien sailean sailkatzen zaituzte, egiten duzun musika egiten duzula”



toz. Ez dakit zehazki Medem-en arrazoiak zeintzuk izan diren, baina euskaraz kantatzen dugunok argi daukagu hemendik kanpo kantatzeaz gain beste betebeharrak bat daukagula: nor bere burua azaltzea. Kantaria zara gehi beste lan extra bat. Nik uste dut aspaldian komunikazioa etenda dagoela neurri handi batean. Berreskuratzeko ahalegin handiak egin behar dira, zeren eta interes handia dago hori gerta ez dadin. Politikan, hemen-

Kulturalki, euskaldunen existentzia bera absurdoarekin berdintzeko joera dago. Horren gainean silogismorik ezin da egin, logikaz ez baita ezer ateratzen. Kanpoan dagoen interes horri, euskaldunon defentsibara egon behar izate hori eta askotan itsuitsu jokatzeko hori gehituz gero, ondorio argia dugu: komunikazioa etenda dago. Ni kantari bat naiz, nire ahotik mintzo naiz errespetu guztiarekin.

## “Azken urteotan euskaldunak komunitate moduan negatiborako bakarrik aipatzen gaituzte, eta horrek eragina du, uste oneko jendearen artean ere”

guz ezkerrek, ezker abertzaleak, aspaldi galdu zuen harremana indar progresista askorekin, eta bestaldetik badago interes handi bat: zentzua eta euskal mundua isolatuagoa egon, are etekin gehiago. Azken urteotan euskaldunak komunitate moduan negatiborako bakarrik aipatzen gaituzte, eta horrek eragina du, uste oneko jendearen artean ere.

—Zer iruditu zaizu filmaren inguruan sortutakoa?

—Ez dut ikusi, ez dut aukerarik izan eta ez daukat iritzi originalik, oso gauza nabarmena baita gertatu dena. Ni naiz ezetz esan ziotenetako bat, nahiz eta gero idatzi diondan, aspaldian ezagutzen baitut.

—Topiko zaharrekin lotzen gaituzte eus-

kaldunok, nazionalismoa bidaiatuz sendatzen dela eta. Munduko hiritartasuna guri saltzeko arrazoirik badute Madrildik?

—Nik uste dut (bidaietako) hori hemen gehiago esaten dela han baino. Askotan aipatzen dugu Madril, hau tennis partida bat balitz bezala, baina hemen sentsibilitate asko daude, eta giro batzuetan euskaldun jendea aldeanoa kontsideratzen da, horrela esanda. Nahiz eta horren kontrako frogak ugari egon, aurreiritzi hori ez da aldatzen, ez delako komeni. Bestela, benetan behartuta sentituko liriteke euskal mundua errespetatzera. Errespetatu nahi dute soilik euskal herriko erdal mundua. Hemendik kanpo askotan aurkitu dituzte, kazetariengan kasu, hemengo askok ez daukaten sentsibilitatea eta begirunea ezberdintasunarekiko. Hemen, hainbat “hemengo” egunkari eta irratik kulturalki Sevillako irratian baten moduan jokatzeko dute, eta ondorioz, hemengo sektore batek kulturalki horrela jokatzeko du. Bada hainbat jende gure aurreko kantariak ezagutzen ez dituenak, Gasteizen bertan, eta harrigarria da. Bi arazo ikusten ditut: bat da orain aipatzen ari garen zer sozio-ekonomikoa eta bestea euskal kulturatik bertatik zabaltzen den irudia.

—Ghetto irudia edo?

—Esan nahi dut hori oso barneratuta dagoela eta modu defentsiboan jokatzeko dela, zirkulua borobilduz. Baina hau ez da aurpegi biko txanpona, gu minoria bat gara gure herrian bertan eta ganoraz jokatu behar dugu, iraun nahi badugu. Ber gauza atzematen diot AEBetako natibo bati edo Manhattan-eko baltz bati.

—Zein izan beharko litzateke euskaldunon estrategia edo diskurtso berria?

—Ez dakit, neure partetik kantu onak egin ez gero pozik nago. Uste dut nor bere bidetik ekin egin behar duela, baina arakatu bidea, gelditu eta ikusi zer den kaltegarria, ez joera itsu batean. Horregatik uste dut badela sasoia errebisioa egiteko, badira hori adierazten duten datu ugari. Ez dakit belaunaldi kontuagatik edo, irudipen hori aski zabaldua dela uste dut.

—Nola dakusazu euskal kultura eskaintza?

—Eskaeratik baino ikaragarri gorago dago. Aje ugari ditu, baina oso bizirik dago, indarra eta retroelikadura handia dagoela uste dut. Talde eta kantari ugari daude, produkzio sendoa... Alde horretatik baikorra naiz.

—Askok diote teknikak eman diola bidea produkzio eskasak zabaltzeko?

—Bai, baina hori gauza handia da, ez gaude horren kontra. Nik aurreko metodoak ordezkatzeko erabiltzen dituzte aurreapenak, digitalean grabatu... Oraindik ez dugu antzematen ahal noraino eramango gaituen honek. Bestela nola grabatu behar nituen kantu danok elkarrekin? Hainbat zinta beharko nituzke.

—Ikusi dut zure diskoak Interneteko truke sareetan daudela. Kezkatzen zaitu horrek?

—Bai, musikaren munduan krisi handia dago gauza horiei esker eta, kezkatzen ez bagara izango da ez daukagulako askorik arriskuan. Uste dut inozotasunez jokatu dugula pentsatuz horrek handiei bakarrik eragingo ziela, baina frogatuta dago kaltea askoz handiagoa dela euskal diskogintzan, aurki defizitariora izango da.

—Zure elkarriketa ia guztietan Pott banda eta 70eko urteak aipatzen dira. Noraino nahi duzu hori zure egungo ibilbidean inspirazio izatea?

—Harriduraz ikusten dut orain hainbeste galdera eta artikulu Pott-i buruz. Niretzako inportantea izan zen, baina gai zabalda da. Alde batetik iruditzen zait ez ote dugun iraganera begiratzen oraingoaren sustraiak argitzeko, artean iragan eskolei buruz ere hitz egiten dute. Gure kasuan halako ospea lortuz gero gauza naturala da jakinmin hori. Zorionez, hor ibili ginenok gaur egun gauzak egiten gabiltza oraindik, eta ez gaitzate orain 25 urteko gauzakin lotu. Oraintsu *Etiopia*-k 25 urte bete dituela eta, galdetu didate eta nik uste dut inportantea izan zela euskal poesiarentzat, poesiarentzat oro har. m


## Diskografia



Hautsi da anphora  
R. Ordorika  
Xoxoa-Elkar 1990



Ni ez naiz Noruegako errege  
R. Ordorika  
Elkar 1993



Bitzoerreak  
R. Ordorika  
Elkar 1985



Henry Bengoa...  
R. Ordorika & B. Atxaga  
Elkar 1988



Ez da posible  
R. Ordorika  
Gasa-Wea 1990



Hiru truku  
R. O., J. Tapia, B. Martinez  
Nuevos Medios 1994



Hiru truku II  
R. O., J. Tapia, B. Martinez  
Nuevos Medios 1997



R. Ordorika & Mugalaris  
R. Ordorika  
Emak Bakia 1992



So'ik'so  
R. Ordorika  
Nuevos Medios 1995



Dabilen harria  
R. Ordorika  
Nuevos Medios 1998



Gaur (zuzenean)  
R. Ordorika  
Esan Ozenki Records 2000



Hurrengo goizean  
R. Ordorika  
Metak 2001



Kantuok jartzen ditut  
R. Ordorika  
Metak 2003

## Azkena, Kantuok jartzen ditut

Urte bi pasata itzuli zaigu musikari “txantxikua” 12 abesti dauzkan disko batez, guztiak Ordorikak berak idatzitakoak; *Kantuaren gauza galduta* izenekoa, ordea, Joseba Sarrionandiak ere parte hartu du. Bernardo Atxagak, bestalde, gaztelaniara itzuli ditu letrak. Aurtongo Durangoko Azokan gehien saldu den disko honetan zenbait musikari elkartu dira: Jonathan Maron (baxua), Ben Monder (gitarra), Kenny Wollesen (bateria), Nando de la Casa (teklatuak), Arkaitz Miner (biolina) eta Virginia de la Casa (ahotsak).



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

UK Urbe Kostako Aldizkaria Armezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
aldizkaria@euskalnet.net / tel: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

# Telebizitza



“Arin bizi gara, eta horregatik dute arrakasta telezerbitzuek”

## Agustín Agirre. Telesolarium Ohetik beltzaran jaikitze

**Leioan du** egoitza nagusia Agustín Agirre algortarrak beste bazkide batek batera daukan Todosol Telesolarium negozioak. Izenak argi dio: norbera solariumera joan beharrean, norberaren etxera dakarte. Telezerbitzuen alorrean ia edozer sar daitekeen froga garbia dugu, beraz, Agirrek eskainitakoa: *“Abantailak eman gura genizkion zegoeneko erro sendoak zeuzkan negozioari, solariumari alegia. Denoi gustatzen zaigu beltzaran egotea, baina jende asko, arrazoi bat edo bestegatik, sekula ez litzateke solarium batera joango. Guk eroan egiten diegu”*.

Telesolariumen hazkundeak ondo erakusten du era honetako ekimenek arrakasta handia daukatela gaur egun. Orain dela sei urte hasi ziren, eta dagoeneko hainbat hiritan daukate ordezkaritzak, Euskal Herrian eta kanpoan. *“Hasi ginenean”,* dio Agirrek, *“bazegoen arriskurik, guztiz eremu berrian sartu ginelako. Ez zegoen inongo azterketarik gurea bezalako negozio batek aurrena egiteko eduki zitzakeen aukeren gainean, baina senak merkatua bazegoela zioskun”*. Eta hala izan da. Agirreraren iritziz, *“arinago bizi gara, eta horregatik daukate arrakasta telezerbitzuek. Denborak balio handia dauka gaur egun, eta horregatik etxera dakartsuena beti da ondo hartua”*. m

## Dani Oñate. Mec-mec Sukaldean jarduteko astirik ez

**Telenegozioek** gauza ugari eskaintzen dituzte, baina oraindik ere janaria etxera darenak dira gehien. Multzo horretan dago Mec-mec, Uribe Kostako telenegoziarik zaharrenetako bat. Zaharrenetakoa, eta hedatuenetakoa, hiru gune daukate-eta, Gorniz, Sopela eta Algortan.

Dani Oñatek, ugazabetako batek, orain zortzi urte ideia zelan bururatu zitzaion gogoratu du: *“Nik neuk, askotan, zeozer eskatu gura izaten nuen eta ezin. Beraz, arropak eta zapatak jantzi eta hanburgesa erostera irten behar izaten nuen. Azkenean, janaria etxera eroango zuen negozioa sortzea bururatu zitzaidan, eta nahiko arrakasta eduki genuen hasiera-hasieratik”*.

Gauzak etxera eroatea gero eta zabalduago dago, *“gero eta erosoak garelako batetik, eta gero eta denbora gutxiago daukagulako bestetik”*. Oñateren ustez, *“gaur egun inork ez du jarduten sukaldean, gazteek ez behintzat. Seguru nago bikote gazteen etxeetan begiraturaz gero, %5ean baino ez genituzkeela aurkituko sukaldariak”*. Izan ere, bere bezeroetan %90 adinez 20 eta 40 urte bitartekoak direla dio Oñatek. *“Nik uste”,* gehitu du, *“mota honetako negozio batek arrakasta du edozer gauza eskainita ere”*. m



“Gaur egun, gazteek ez dute sukaldean jarduten”

Beti arin, beti presaka. Erlojuaren menpe gabiltza, denboraren atzaparretan estu-estu harrapatuta. Hori da gizarte moderno honetan bizitzeak daukan prezioa, gure ohiturak ere apurka-apurka aldatuz doana. Gero eta gehiago dira aurretik “tele” berba itsatsita daren negozioak. Betiko gauzak eskaintzen dituzte, baina orain, aspaldi ez dela joaten ginen lekuetara joateko denborarik ez daukagenez, etxera ekartzen digute. Eskaintza, gure eskualdean ere, zabalduz doa. / Testuak: Unai Brea / Argazkiak: Asier Mentxaka

## Carlos Cota. The New Orange Orain, filmak ere bai

**Inaugurazioaren** biharamunean egon ginen The New Orange enpresak Sopelan ireki duen ordezkaritzan. Bertako arduradunak, Carlos Cota madrildarrak (Sopelan bizi da orain), euren zereginen nondik norakoak argitu zizkigun: azken batean, bideo-klub arrunta da, baina berrikuntza bat eskaintzen duena: filmak bezeroaren etxera erosten dituzte, hala gura izanez gero. Tira, filmak eta *“filmari laguntzen dion guztia: patatak, edariak...”*, argitu zigun Cotak.

Goizegi da oraindik negozioa ondo ibiliko den ala ez jakiteko, noski, baina Cotak dioenez, orain arte ireki den lekuetan arrakasta lortu du filmak alokatzeko modu berri honek. *“Argi dago, erosotasun kontua da”,* zioskun, *“hortxe dago etxerako zerbitzuen gakoa”*. Hala ere, badago, beraren ustez, gauzak ondo joatea ala ez eragin dezakeen faktorea: prezioa. *“Askotan, janaria erosten dizutenen kasuan batez ere, gutxieneko eskaria ezartzen dute, 6 euro edo dena delakoa, eta horrek asko mugatu dezake balizko bezeroa”*.

Zelangura, telenegozioek gorantz egiten dutela ukazina da. Gauza berriak eskainiz gainera. Cotarena, esaterako, mota honetako lehen negozioa da Bizkaia osoan. m



“Jendearen erosotasunean dago mota honetako negozioen gakoa”



ANTOLAKETA ETA ZERBITZUAK,

Zorionak eta urteberri on!

- ETXE ETA BULEGOEN MUDANTZAK
- ALTZARIEN MUNTAI ETA DESMUNTAIAK
- GARRAIOAK ETA PORTE TXIKIAK
- ENBALAJEAK
- MERKANTZIAK GUZTIZ ASEGUARATZEN DITUGU

LEKUZ ALDATU GARA, HAU DA GURE HELBIDE BERRIA

ERROTATXU INDUSTRI GUNEA, B bloke - 11. pabilioia - 48993 GETXO  
Tel: 94 491 17 44 - FAX: 94 491 08 51 - LARRIALDIAK: 606 97 12 49

E-mail: az@antolaketa.com  
www.antolaketa.com





FILMAK IKUSTEKO ERAIKI ZEN PANTAILA, BASAMORTUAREN ERDI-ERDIAN


## Sahara, zinema izarpean

Azaroaren 20 eta 23 artean Saharako Nazioarteko Zinema Jaialdia ospatu zen Tindouf-en (Algeria). Duela ia 30 urte, Marokok euren lurraldeetatik kanporatu eta gero, Algeriak utzitako basamortu zati latz baten bizi dira 200.000 errefuxiatu saharai oso baldintza gogorretan. Jaialdi honen antolatzaileek saharaiuen bizimodu etsigarria arintzekotan, zinema pantaila handian ikustea zer den erakutsi nahi izan diete lehenengoz errefuxiatuei. Hara propio eroan ziren filmak eta zinema proiektoreak. Saharaiiek eurek egurrezko pantaila erraldoia eraiki zuten. Lau egunez izarpean zinemaren magia ezagutu zuten lehenengoz hainbat lagunek. Hara ere bertaratu ziren hainbat aktore eta zinema-zuzendari euren lanak aurkeztera. Esaterako, Paul Laverty (*Sweet sixteen*), Julio Medem (*Euskal pilota*), Achero Mañas (*El bola*), Angel de la Cruz (*El bosque animado*), Alberto San Juan (*El otro lado de la cama*)... Getxoko Udalak ere diruz lagundu duen ekimen eder honetara UKko lagunok joan ginen. Zinemaldiko irudiak ezezik, saharaiuen bizitza zertan den islatzen duten irudi hauek ere ekarri dizkizugu irakurle. Eta ez ahaztu! Duela ia 30 urte euren jatorrizko lurraldera noiz itzuliko zain, duintasun handiz han dirautela 200.000 lagun saharai.

Argazkiak: **Asier Mentxaka & Jokin Aspuru**




IKUSLEEI ONGIETORRIA EMATEN ZIEN JAIALDIAREN KARTELA



GAMELUARENA DA SAHARAIUIAK JATEN DUTEN OKELA




GAZTE ZEIN UMEENTZAKO ANTOLATU ZEN ZINEMA



UMEEK ARRETA HANDIZ JARRAITU ZITUZTEN EURENTZAKO IPINI ZIREN FILMAK



ZINEMALDIRA EUREN LANAK AURKEZTERA JOAN ZIREN ZENBAIT AKTORE ETA ZUZENDARI



UME SAHARAIUIAK, BETI IRRIBARTSU



BASAMORTUAREN ERDI-ERDIAN BIZI DIRA ERREFUXIATU SAHARAIK



UME ASKOK GUREAN IGAROTZEN DUTE UDA, GOIKO ARGAZKIAN ERDIAN DAGOENA DA BAT



EZER GUTXI BADUTE ERE TEA ESKAINTZEN DUTE BETI



ADOBEZKO ETXOLETAN ETA JAIMETAN BIZI DIRA SAHARAIK




NAZIOARTEKOKO ELKARTASUNA ERRAZ IGARTZEN DA



AZOKA TXIKIAK ERE BADIRA ERREFUXIATUEN KANPAMENDUETAN




UME MORDOA DAGO SAHARAN, HAUEK ESKOLARAKO BIDEAN HARRAPATU GENITUEN






AMA BI SMARA HERRIKO ESKOLAN



ANDRAZKO BI ETXAURREAN



AHUNTZAK ETA GAMELUAK DIRA TINDOUFEN IKUSTEN DIREN ANIMALIA BAKARRAK



JAIMA HANDI BI



GIZONEZKO NAGUSI GUTXI IKUSTEN DA HAN, EURETARIKO ASKO GERRAN HIL ZIREN ETA




SAHARAI BAT HAGINAK GARBITZEN



FERMIN MUGURUZA ETA BERE "KONTRABANDA"-K ZINEMALDIAREN AZKEN EGUNEAN JO ZUTEN. EUREN AURTENGO BIRARI HASIERA EMAN DION KONZERTUA GOGOANGARRIA IZAN ZEN



GAZTE SAHARAIK KONZERTUA HASI AURRETIK



MIKEL ABREGO BEROKETA ARIKETAK EGITEN

## zineeskola

Oskar Fernández

## Zinema eta publizitatea

Zinema arte bat dela, zazpigarrena hain zuzen ere, ez dago inolako zalantzarik, baina objektu edo merkantzia gisa erabiltzen dela ere ez dago eztabaidatzerik. Zinemak daukan merkataritza alde horrek argi adierazten du artea baino gehiago etekin ekonomikoa interesa ziola askori. Ekozile asko eta askok dirutza ikaragarriak xahutzen dituzte dute filmak iragartzeko. Film berri asko, sortu ahal izateko behar diren diru eta giza baliabideengatik, merkataritzaren eremuan sartzen dira bete-betean, baina honek ez luke ekarri beharko zinemak dituen ezaugarri artistikoak albora uztea, eta are eta gutxiago, publizitate trikimailuak erabili behar izatea jendea zinema-aretoetara erakartzeko. Publizitateak duen pisu izugarria ikusteko, nahikoa dugu Wachowski anaiek egindako azken filmari begiratzeara: zuzendari hauek *Matrix* istorioa hastearrekin batera sona eta arrakasta ederra lortu zuten, baina saga-ren amaieran ere diru-irabaziak ziurtatzeko estrategia maltzur batez baliatu ziren: aldibereko estreinatzea. *Matrix*-en hirugarren atalaren egileek eurek ere argi ikusi zuten, filma ikusleenganatu aurretik, lehenengo bi filmekin *-Matrix* eta *Matrix reloaded-* ez zegoela hirugarrena *-Matrix revolutions-* alderatzerik, ez zuela aurreko bien maila ematen, ez eta urrundik ere. Hortaz, ikusle-beherakada gutxitzeko, estrategia komertzial berezia erabili zuten: *Matrix revolutions* munduan osoan egun berean estreinatu beharko zen, joan den azaroaren bostean. Era horretan, jende mordera abiatu zen zine-aretoetara, aurretik filmaren kalitateaz iritzi fidagarriak jakin gabe. Egileek era horretan egin zioten aurre, neurri batean, aurrez ikusitako porrotari: maltzurkeria ez zitzaion falta estrategiari, baina beharbada alde txarrera, hainbat eta hainbat komunikabide joko horretan sartu zirela dugu. 4

## Areetako Gran Cinema


Osasunez makal dago Getxon bizirik dirauen zinema-areto peto bakarrak

1922ko martxoan ireki zen lehen aldiz Areetako Gran Cinema; beraz, 80 urte baino gehiago dauka: ez dira gutxi! Dena den, eraikina goitik behera eraberritu zuten, "eta esan daiteke 1990eko abenduraren 21ean berriro zabaldu zela, 'Pretty Woman' filmagaz; ezin hobeto funtzionatu zuen", diosku Suso Gómez-Cambronero programazioaren arduradunak.

## «Martxoan 82 urte bete-ko ditu Areetako Gran Cinema aretoak»

Gómez-Cambronero familiak 1983az geroztik dauka Gran Cinemaren ardura. Hain zuzen ere, Mesedeetako kalean dagoen zinema-areto horrek 80ko hamarkadan bizi izan zituen sasoirik onenak. "Azken urteotan 'Titanic', 'Amelie' eta 'El hijo de la novia' filmek utzi dute diru gehien leihatilan", azaldu digu Susok; alabaina, astero zenbat ikusle biltzen diren galdetu diogunean, "zoritxarrez, beharrezkoak diren baino gutxiago" erantzun digu erdi-atsekabetuta.

Gurea, Cervantes, Bikain, Barria eta halako zinema-areto getxoxtarrak desagertu ostean, Gran Cinema dugu bizirik dirauen bakarra; hori bai, areto erraldoiez



Suso Gómez-Cambronero areto barruan

inguratuta: "Armorikako galiarrak bezala sentitzen gara (badakizu, Asterix-en herrixka), erromatarrez inguratuta, jo-ta-ke borrokan inbaditzaileari aurre egiteko... Hemen jarraitzen dugu harro, baina ez dakigu noiz arte; zoritxarrez, ez daukagu ez druidarik ez edabe magikorik ere". Izan ere, zinematxo hau makal ei dabil osasunez, "ezin dezakegu baldintza beretan lehiatu, banatzaileek ez dizkigute-eta areto erraldoiek dauzkaten 'arma' berdinak eskaintzen", diosku Suso Gómez-Cambronero. 3

## Ez galdu &gt; "Bowling for Columbine"



*Bowling for Columbine* ordu biko dokumental bikaina da, Ameriketako Estatu Batuetan gertatutako hainbat ezbehar eta gertaera bortitz deskribatzen dituena, pertsona ugari iritziakaz batera. Michael Moore zinegileak punta-puntako dokumentala egin zuen: minutu bakoitza isilpeko garrasia bihurtzen da munduko herri indartsuenak armen arloan duen jarraera salatuz. Film ezin-interesgarriago hau Columbine herrian gertatutako sarraskian hasten da: mutil ikasle bik ikaskideak hil zituzten beren burua hil baino lehenago. Dokumentalak argi erakusten du balak erostea zer erraza den herrialde horretan: Kmart, Ameriketako Estatu Batuetako supermerkatu sare ospetsuenetarikoa bat da, eta supermerkatu horietako batean erosi ziren Columbine-n gertatutako tragedian erabiltako balak. Nazioarteko hainbat eta hainbat sari handi jaso du lan honek.

## Urdulizko Producciones Serrano &gt; Artisten managerrak

Jose Angel Serranok zuzentzen duen bulegoa 20 urte betetzeko bidean dago

Getxon 34 urte daraman Jose Angel Serranok (jaiotzez Miranda de Ebrokoa da) 1984an sortu zuen Producciones Serrano; "20. urteurrena behar eginez ospatuko dugu, eta geure logotipoari itxura aldatuko diogu", diosku Jose Angelek. Producciones Serrano ez da beti Urdulizen egon: "Urte askotan Bilbon geneukan bulegoa, baina orain dela 9 urte etorri ginen Igeltzera aldera".

## «Rolling Stones-ena izan da orain arte ekoiztu duten kontzerturik handiena»

Bost langile dauzkan bulegoa Euskal Herriko taldeak eroateko sortu zen, "Alen izan zen lehenengoa", baina gaur egun beste zereginetan dihardu: hemengo eta kanpoko taldeen managerra, agentzia artistikoa eta kontzertuen ekoizpena, gehienbat; "diskoetxe ere bagara, aspalditik diskorik kaleratzen ez dugun arren. Egia esan, taldeei eskaintzen genien zerbitzua zen, besterik ez".

Jose Angel Serranoren berbetan, lanbide gogorra da berea: "egunero bulegoan sartuta, gau askotan lo egin barik, eta aste akabuetan kontzertuetan egon beharra". Baina poz handiak ere ematen ditu, esaterako, Rolling Stones taldearen kontzertu bat Bilbon ekoizteak: "Hori izan da orain arte



J. A. Serrano, Producciones Serranoko gerentea

egin dugun gauzarik handiena". Eta jakina, harro daude, "ondo atera zelako eta bildu ziren 38.500 ikusleak gustura atera zirelako"; baita Rolling Stones-ekoak ere: "Ekoizpenari dagokionez, San Mamesekoa kontzerturik onenetarikoa izan zela esan zuten".

Bejondeiela! 3

## PRODUCCIONES SERRANO-NAUDEN MUSIKARI BATZUK

- Georges Moustaki
- Billy Bragg
- Juan Carlos Perez
- Amaia Zubiria
- Skalariak
- Gozategi
- Atom Rhumba
- B-Violet
- Sharon Shannon
- Circo Ocelot

## diskoak

Absolution  
Muse  
Dro East West



Matthew Bellamy buru daukan hirukotearen disko berri hau orain arte egin duten garrantzitsuenak izan daiteke. Zerbait abesti grabatu zituzten orkestra handi batek, baina Irakereko gerrak aldarazi egin zizkien hasierako asmoak. Zelangura, lan honek Erresuma Batuko taldearen ezaugarriak gordetzen ditu: rock, pop eta musika klasikoaren nahasketa harrigarria.

12 memories  
Travis  
Sony Music




*The invisible band* aurreko diskoaren arrakastaren ostean (tartean sasoi nahasi bat ere bizi izan dute), Eskoziako laukoteak lan berria kaleratu du, laugarrena hain zuzen. Fran Healy-ren taldeak hama bi abesti bildu ditu bertan, eta amodioa eta gerra bezalako gai sakonak modu zorrotzean (eta batzuetan, kezkarri) jorratu dituzte.

Room on fire  
The Strokes  
RCA Records



New York-eko talde honen lehenengo lanak *-Is this it-* liluratuta utzi gintuen. Bigarrena ailegatu zaigu dagoeneko, eta entzungai dauden hamaika kantuak (izan ere, 11 dira) aurreko diskoarenak baino melodikoagoak ei dira; zenbait abestitan Michael Jackson-ekin doinuen eragina ere nabaritzen da nolabait.

## Lehiaketa &gt; Bilbao Hiria abian



Abenduaren 31 arte zabalik egongo da Bilbao Hiria Pop Rock Lehiaketara maketak aurkezteko epea; gutxienez, hiru abestiz osatuta egon behar dute. Lehiaketaren 16. aldi honetara edozein talde edo bakarlarik aurkez daiteke, diskoaren bat argitaratu edo aurreko aldietara aurkeztu direnak izan ezik. Hiru musika estiloko atalak daude, eta epaimahaiak 46 talde aukeratuko ditu guztira: 25 pop-rock estilokoak, 12 metalekoak eta 9 joera berrietakoak. Horiek gutxiak lehiaketaren bigarren fasean parte hartuko dute, hau da, jendaurreko kontzertuak eskaini beharko dituzte Bilbo rock aretoan otsaletik maiatzera bitartean; ekainaren 9an eta 10ean izango dira talde onenen azkenengoak.

www.bilbao.net/bilbo rock

## Maketak &gt;

Euskadi Gaztearen lehiaketa Kerobia taldearentzat

Iruñako Kerobia taldeak irabazi du Euskadi Gaztearen XIII. Maketa Lehiaketaren sari nagusia; entzuleen sariari dagokionez, Andoingo Kauta, Berrizko Zer eta Ondarruko Keike izan dira botu gehien jaso dituzten hiru taldeak. Epaimahaiak 6.000 euroko diru-saria Kerobiari emotea erabaki du, "melodiaren, sendotasunaren eta interpretazio ahalmenaren arteko oreka zirrargarria lortzen duelako". Aurtongo lehiaketara Euskal Herri osoko 220 taldek bidali dituzte maketak (%45 Bizkaitik), baina nabarmentzekoa izan da nafarren partaidetza, sei talde ailegatu dira-eta finaleraino.

## esaterikbadut

Esti Ezkerra

## Egunerokoa (XI)

## Oroitzapen bildumak

Atsegin ditut Iñakiren klaseak. XV. mendeko Txinako grabatzaileen lanetan antzeman daitezkeen aldaeren gaineko klase bat emango balu, horretara ere apuntatuko nintzateke. Soilik berari entzutearren. Atsegin dut gelako ertz batetik bestera trazatzen duen ibilbidea hizketan ari den bitartean, noizean behin egiten dituen etenaldiak jarraian datorrena garrantzitsua dela adierazteko. Atsegin dut munduaz duen ikuspegi anarko-kritikoa, eta, batez ere, inorekin ez lerrokatzeo erakusten duen jarrera irmoa.

Ezusteko galderaren batekin aztoratu nahi izan dugun guztietan, garaile atera da beti. Gu baino zaharragoa gailentzen dela esaten du, eta, jakina, azkarragoa. Behin, bilduma zaletasunaz ari ginela, gizakiok berezkoa dugun ezaugarria dela aipatu zuen. Ez gintuen konbentzitu. Gure artean bazen kromo ziztrin bat bera ere sekula gorde ez zuen jendea. "Denok egin dugu inoiz bildumaren bat. Gauza fisikoez ez bada, oroitzapenekin, behintzat, bai". Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, zenbat sentimendu, desio, amets, gorroto, burutazio eta abar ez ote ditugun geurekin gordetzen. Ez ditugu apal batean kokatuko eta jendearen aurrean erakutsiko, baina hortxe daude, gurekin.

Berriro ere lortu du. Ahoa bete hortz utzi gaitu Iñakik. Gutako bakoitza altxor baliotsu baten jabe sentiarazi du hitz horiekin. Marcel Proust etorri zait gogora. Zehazki, hark idatzitako madalenaren pasarte (Denbora galduaren bila osorik irakurri barik literatur ikasle guztiek buruz dakiten atala). Ezingo nuke esan bietatik zein iruditu zaidan literarioagoa: Iñakiren azalpena ala Prousten pasarte. Esandakoa. Bizitzan ere aurki daitezke memento poetikoak.<sup>4</sup>


## Jon Bilbaoren ondarea

Aldundiak **Eusko Bibliographia** euskal gaien inguruko datu-baserik garrantzitsuen, abian jarri du

**Kazetaria**, editorea, etnologoa, historialaria, ikertzailea, bibliografoa, irakaslea, bidaiari nekaezina... Jon Bilbao getxoxtarraren curriculum luze horri *Eusko Bibliographia* lan mardula gehitu behar zaio nahitaez, mende erdi baino gehiagoko ikerketen emaitza izan zen-eta; Bilbaoren familiak Bizkaiko Foru Aldundiari eman zion aitaren lana, eta hura aztertu, bildu eta landu ostean, *Eusko Bibliographia* izeneko fondoa ezagutzera eman dute dagoeneko, bai eta jendearentzat zabaldu ere internet-en.

## «Amale Bilbao alabak Foru Liburutegiari laga zion 1999an»

Tresna berri hau euskal gaien eta egileen inguruko datu-base zabalda da, hainbat iturritako 100.000 erreferentziatik gora dauzkana. Material horiek guztiak ez ziren orain arte ezagutzen, eta teknologia aurreratuak landu eta prestatu dituzte, euskal kultura ezagutu gura duen edozein erabiltzailek eta ikertzailek erabiltzeko. Dokumentu multzo honen gune nagusia Jon Bilbao izen handiko bibliografoak bizitza osoan zehar egin zuen bilketa-lanakaz osatu



Jon Bilbao 1994an zendu zen, 80 urte zituela

tuta dago; balio handiko ondare hori Amale alabak eta oinordekoak Foru Liburutegiari laga zion 1999ko abenduan, nazioartean zabalteko baldintzagaz. *Eusko Bibliographia* fondo paregabea eta ikertzeko ezinbestekoa dugu, bai edukiengatik bai sakontasunagatik. m

## EUSKO BIBLIOGRAPHIA

- 100.000 erreferentziatik gora.
- Milaka agiri 300 kutxa baino gehiagotan banatuta.
- 600.000 euroko balioa; akademikoa, berriz, zenbatezina.
- Lau hizkuntzatan: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.
- Foru Liburutegiaren webgunean (<http://-bibliotecaforal.bizkaia.net>) zabalik.

## liburuak



**Airezko emakumeak**  
Felipe Juaristi  
Erein

Idazle eta kazetari azkoitiarraren eleberririk hiru atal dauzka, historiako garai desberdinetan kokatuak. Inkisizioak, Frantziako Iraultzak eta naziek sortutako oinazeak eta izuak hartu ditu mintzagai Juaristik.



**Esan gabe neukana**  
Agurtzane Juanena Alustiza  
Elkar

1975ean atxilotu egin zuten liburu honen egilea. Larriki zauritua irten zen komisariatik, eta urte eta erdi behar izan zuen lesioak osatzeko; barruko oinazeak, ordea, askoz gehiago iraun zion. Hau da Agurtzanearen lehen liburua, eta seguru, idatziko duen bakarra.

Antonio Meucci &gt;

## Telefonoaren asmatzailea

Italiako etorkin honek ahotsa garraiatzeko tresna sortu zuen **Graham Bell-en aurretik**

**Gauzak** beste modu batera gertatu izan balira, gaur egun "teletrofono" berba erabiliko genuke "telefono" esan ordez, baina Antonio Meucci zorigaiztokoaren ibilbidean Alexander Graham Bell gaztea eta handinahia gurutzatu zen.

Meucci Florentzian jaio zen 1808an. Kuban dirutza lortzen saiatu ostean, New Yorkeko auzo pobreetara joan zen ingelesez tutik ere jakin barik (izan ere, ez zuen

## «Bell-ek Meucci-ren telefonoaren patentea lapurtu zuela salatzen dute»

sekula ikasi); han, Giuseppe Garibaldi iraultzailea hartu zuen bere erbestealdian. Meucci-k ezin izan zuen zori txarra gaineitik kendu: telefonoaren lehen prototipoa bahi-denda batean saldu behar izan zuen; hura 1855ean asmatu zuen (Bell-ek baino 19 urte lehenago), elbarri geratu zen emazteagaz komunikatzeko. Ezbehar askoren ostean, bigarren modeloa ere egin zuen 1871n, baina ez zeukan sosik patentea ordaintzeko. Bidegabekeria historikoa bost urte geroago gertatuko zen, egunkariak Graham Bell gazteak telefonoa asmatu zuela plazaratu zutenean.



Antonio Meucci italiarra, telefonoaren aita

Batzuen ustez patente lapurreta gertatu zen hor; italoamerikarrek, esaterako, ez daukate zalantzarik horretaz: *El Padrino* filmari eta *Los Soprano* telesailaren ere irain eta desohore hura salatzen da. Meucci koi-tadua ahaztua eta behartsu hil zen, Bell-ek oso errentagarria izango zen *Bell Telephone Company* enpresa sortu eta enpresaburu arrakastatsua bihurtzen zen bitartean. Zelangura ere, iaz Estatu Batuetako Kongresuak onartu egin zuen etorkin italiarra (eta ez Graham Bell) izan zela telefonoaren benetako asmatzailea. Erabaki horrek ezin du historia aldatu, baina agian testu-liburuak aldarazteko balio dezake. m

Entzun &gt;

## Gaztematik

Euskadi Gazteak Estatuko lehen irratsaio interaktiboa ipini zuen abian azaroaren 17an. *Gaztematik* entzuleen neurri egindako saioa dugu; hau da, eurek egindako musika eskaerak osatzen eta diseinatzen da, "gazteen gustuei erantzunez", dio Edurne Ormazabal Euskadi Gazteko koordinatzaileak. Entzuleen partaidetza bultzatzeko webgune bat ere sortu dute [www.eitb.com/egaztea/gaztematik](http://www.eitb.com/egaztea/gaztematik) helbidean; tresna interaktibo hori lau ataletan dago banatuta: *Sareko kanta*, *Zerrendak*, *Eztabaida taldeak* eta *Nire profilak*. Ainhoa Urkiak gidatzen duen irratsaio hau astelehenerik barikura entzun daiteke, gaueko 21:00etatik 23:00etara.

## Irakurri &gt; Larun



2000. urtetik hona *Argia* astekariagaz batera ematen den gehigarria da *Larun*. Hilean behin, gizarte edota politika gaiak jorratzen ditu *Larunek*, zurbeltzeko 24 orrialdetan zehar. Gaia bakarra izaten da aldiro, eta horren inguruko mahainguru edo eztabaida antzeko bat antolatzen dute aldizkariaren egileek, hainbat jenderen iritzia bilduz. Hasieran, 16 orrialde baino ez zeuzkan, baina denboraz beste zortzi erantsi zizkioten, gai nagusiagaz zerikusia ez daukaten iritzirik artikuluak leku egiteko. Esan bezala, *Argiarekin* batera joaten da *Larun*, haren baruan, eta ez da gainerako xoxik ordaindu behar beraren truke.

Harremanetarako: 943 37 15 45

## uhinakFM

Getxo Irratia	.....87.6
Radio Euskadi	.....92.4
Euskadi Gaztea	.....94.7
Bilbo Hiria Irratia	.....96.0
Tas-Tas Irratia	.....97.0
eitb irratia	.....100.1
Bizkaia Irratia	.....102.6
Koska Irratia	.....104.1
Euskadi Irratia	.....104.4
Pititako Irratia	.....107.0


Egunkariak  
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34

Gure espezieak &gt;

## Basurdea



- **Izen generikoa:** *Sus scrofa*
- **Izen arrunta:** Basurdea
- **Berezitasunak:** 1,20-1,80 metroko luzera, 70 zentimetroko altuera, eta 75-150 kiloko pisua
- **Bizilekua:** Landazabalak, pinudiak, padurak, eta iratze eta ote inguruak

Txerriagaz antza handia dauka, baina askoz ilet-suagoa eta lirainagoa da basurdea. Ilea luzea, gogorra eta itxia dauka, eta kolore aldetik itxura bat baino gehiago erakus dezake: gomixka (batez ere, kumea denean), grisaxka, beltza... Animalia honen buru luze eta handiaren ezaugarri nabarmena lurra arakatzeko egokituta dagoen mutur irtena da. Arra eta emea bereizteko, ugaltze organoetako ile-mototsari eta ugatzei, hurrenez hurren, erreparatu behar diegu; izan ere, letaginek ezer gitxi lagunduko digute zeregin horretan: badira arrek baino letagin handiagoak dituzten basurde eme zaharrak.

Basurdeak basoa dauka gustuko bizileku, baina erraz moldatzen da beste ingurune batzuetara: belardi ugari dagoen pinudietara, eta soroak, ortuak eta erreka ibarrak hur dauzkaten iratze eta ote inguruetara, adibiderako.

«Getxoko inguruetara datozen basurdeak noraezean ibilitakoak dira»

Basurdea orojalea da, basoan aurkitzen duen ia edozer jan dezake. Aukeran ordea, gaztainak eta ezkurak ditu gustukoen. Zortea lagun, gaztainondo eta haritz inguruetan otordu goxoak egingo ditu, talde txikitik edo bakarka. Bestalde, ez die muzin egingo landare batzuen sustraiei, tuberkuluei edota trufei. Arraroa dirudien arren, haragia ere jaten du tarteka. Esan bezala, dieta oso zabala du, eta ugaztun txikiak, anfibioak edo narraztiak ere agertzen dira bere eguneroko menuan.

Bizkaiko kostaldera noizbehinka baino ez zaigu agertzen txerriaren aitzindari hau; Getxora eta inguruko udalerrietara datozenak, esaterako, noraezean ibilitako aleak dira; izan ere, lurralde berrietara zabaltzeko joera nabaria daukate, baina zelangura, nahiko lan ematen du gurean bat topatzeak: Larrañazubi erreka inguruetan eta Bolueko hezegunean zenbait arrasto aurkitu zituzten 90eko hamarkadan.

Gaia &gt; galipota

## Zelan daude gure hondartzak?

Oraindik ere **garbitu barik** jarraitzen dute eskualdeko hainbat haitz gunek

**Urtebete baino** gehiagotxo igaro da zorigaiztoko *Prestige* petroliountzia Galiziako kostaldearen aurrean hondoratu zela. Eta urtebete inguru, hark askatutako fuel orbanak Euskal Herriko eta Uribe Kostako itsasertzera ailegatu zirela. Hilabete askotan zehar, galipota barra-barra etorri zitzaigun, ehunka eta ehunka tona batu arte. Orain, badirudi apur bat lasaiago gabiltzala, baina adituek diotenez arriskua ez da desagertu, hau luzerako joko duen kontua da eta.

«Barrikako eta Armintzako haitz guneak ei daude okerren»

Hondartzen egoeraz galdetu dugu artikulua izenburuan. Hareazko hondartzei begiratzen badiegu, hau da, oro har udan zapaltzen ditugun hondartzei, edo "ikusten" direnei, egoera ona dela esan behar. Ikusi behintzat, ez da zikinerririk ikusten. Beste kontu bat dira haitzarteak. Urtebete igaro den arren, horietako gehienetan ez da oraindik ezer egin, kala txikiren batean edo bolondreskoek sartzea erabaki duten guneetan izan ezik. Okerren daudenak Barrikako eta Armin-

tzako haitz guneak ei dira, hainbat elkarte ekologistak adierazi digutenez.

Esan bezala, galipota hondartzetara itzuli daiteke, haizea aldatuz gero. Adituek esan dutenez, gainera, baliteke negu honetan fuel-olioa euriagaz batera etortzea. Zer ikusi behar dugu oraindik? m



Olatz Gorrotxategi &gt; sopranoa

“Euskadin oso ahots interesgarriak daude, eta pena da horiek lantzeko modurik ez egotea”



Abenduaren 19an Getxo Antzokian abestuko du Olatz Gorrotxategi soprano algortarrak

Olatz Gorrotxategi soprano algortarra orain 20 urte joan zen Italiara, baina lantzean behin sorlekura itzultzen da. Horren adibide, datorren abenduaren 19an Getxo Antzokian emango duen kantaldia, **Berria** egunkariaren alde antolatu den jaialdi baten barruan. Bisita horren aurretik, UK-k Gorrotxategigaz berba egiteko aukera eduki du, bertoko soprano bat alde egitera behartzen duten arrazoiez, besteak beste.

—Zelan hasi zinen abesten?

—Txikitatik aitarekin kantatzen nuen, etxean, berak gitarra jotzen zuen bitartean. Harengandik hartu nuen zaletasuna, bera oso musikazalea delako eta tenore ahots zoragarria daukalako. Gero, San Nikolas ikastolako Kimetz abesbatza hamar bat urtez kantatu nuen.

—Eta zerk erogan zintuen Italiara?

—Bizitzaren kontuek. Florentziara joan nintzen errestaurazioa ikastera. Bertan kantua lantzen hasi nintzen, eta orain arte.

—Ematen du zaila dela Euskal Herrian *bel canto* delakoan jardutea. Zu Italiara, Ainhoa Arteta bera New Yorkera...

—Ni etorri nintzenean, Euskadin ez zegoen artean musikarako orain dagoen egoera aproposa, horregatik Italian geratzea erabaki nuen. Ez da bide erraza izan. Ikasketak oso karuak dira, bidaietan eta abarreko gauzetan diru asko xahutu behar da, liburuak, pianoa...

—Zer egin behar da Euskal Herrian abesten ikasteko? Nora jo?

—Irakasle onak ekarri behar dira. Edo bestela, zaletasuna daukan jendeari diru laguntzak eman, kanpoan ikasteko aukera eduki dezaten. Italian badago zenbait eskola ospetsu eta on, eta gainera han hizkuntza ondo ikasteko aukera dago, italiara da-eta kanturako hizkuntzarik aproposena.

—Eta zer egin behar litzateke Euskal Herrian *bel canto* indartzeko? Badago entzulerik hemen?

«Gazte ugari ikus daiteke operan, zarzuelan edo bestelako kantaldietan»

—Borondatea eta diru laguntzak behar dira. Jendeak asko maite du musika, eta opera ere bai. Zaharrak bakarrik ez, gazte ugari ikus daiteke operan, zarzuelan edo bestelako emanaldietan. Berez zaletasuna badago, zergatik Jaurlaritzak ez du gehiago egiten abeslari euskaldunei bultzada emate aldera? Euskadin oso ahots interesgarriak daude, eta pena da horiek lantzeko modurik ez egotea. —Zu bezalako soprano batengan, zenbat da berezko gaitasuna eta zenbat egindako lana edo ikasitako teknika?

—Abeslari batentzat, berezko gaitasuna oso garrantzitsua da, baina ez da gauza bakarra. Asko ikasi behar da teknika ona edukiteko. Neke handia dakarren lana da.

—Zer egiten duzu ahotsa zaintzeko? Ahotsak badauka iraungipen-datarik?

—Sarri, ezin dugu jende "normalak" daukan bizimodu eduki. Bizitzeko modu berezia daukagu, oso bakartiak gara, lanak askotan bakarrik egotera errotan gaituelako. Norberaren ahotsari ondo doakion erreperitorioa aukeratuz gero, hirurogei urtetik gora ere kanta daiteke, hor daukagu Alfredo Kraus esaterako. Baina erreperitorioa txar aukeratuta, bi urtean gal daiteke ahotsa. m



## Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Gogoa &gt;

## Kontsumorako grina

Nagore Etxebarri psikologoa

Ezin uka dezakegu bizi garen garai honetako ekonomia, eta azken batean mundu mailako politika eta gizarte, kontsumoan oinarrituta daudela. Esan genezake gizakia gizarte honetan txerta daitekeela, baldin eta kontsumo gaitasuna badu.

Baina gizabanakoari eutsiz, goazen aztertzeraz zein mailataraino izan daitekeen arazo kontsumitzaile izatea, gai honen inguruan ikerketa zientifiko gutxi badago ere. Gabonak bertan ditugularik, norbaitek ezagutzen du oparirik egiten ez duen familiarik, edo garai honetan garestien dauden produktuak jaten ez dituenik? Askotan ohartzen gara astakeria egiten gabiltzala, baina hala ere, egin egiten da, besteen itzaropenei huts ez egitearren.

Baina badakar arriskurik horrela jokatzek, hau da, besteek gutaz espero dutena, edo guk besteek gutaz espero izatea nahi duguna ase nahian kontsumoan jarduteak: gutaz besteek izango duten irudia kontsumitzen dugunaren arabera bada, horren morroi bihur gaitzeko, batez ere errealitatea ez den irudi bat sortu nahi badugu. Hau da zehar bait pertsonari gertatzen zaiena: beren buruekin konforme ez daudela eta izan nahiko luketen pertsona bat eraikitzen dutela kontsumitzen dutenaren arabera. Gainera, horrek badu barne-elikatze bat: ingurukoek kontsumitzaileak erosi dituen produktuak baloratzerakoan, honek bilatzen duen arreta lortuko du, eta hori errefortzua izango berarentzat.

Aurreko zenbakietan ikusi dugunez, errefortzu horrek ekintza errepikatzeraz bultzatzen dezake, eta hala, pertsona horrek kontsumoaren bitartez asetzen du bere buruarekiko ezinegona, konturatu gabe bere buruaz daukan idealizaziotik urruntzen joan daitekeela horrela jokatu, kontrolrik gabeko kontsumoaren ondorioz. 4

**«Askotan ohartzen gara astakeria egiten gabiltzala, baina hala ere, egin egiten da, besteen itzaropenei huts ez egitearren»**

Gorputza &gt; loditasuna

## Kontuz gehiegizko pisuarekin

Gonzalo Gómez de Iturriaga medikua

**Loditasuna** agertzen da gorputzak gehiegizko koipe kopurua pilatzen duenean. Kasurik gehienetan, erabiltzen direnak baino kaloria gehiago hartzeak eragiten du, elikadura desegokiagatik edota ariketa fisikorik ez egiteagatik. Hala ere, batzuetan herentzia kontuak eta metabolismoaren gaitzak izaten dira loditasunaren zergatia.

Nonork loditasuna daukan jakiteko, gorputz-masaren indizea (GMI) erabiltzen da. GMI ezagutzeko, pisua eta altueraren karratuaren arteko zatiketa egin behar da (pisua kilogramotan neurtuta eta altuera metroan). GMIren balio normala 20 eta

27 bitartekoa da. Hortik gora, loditasuna dagoela esan daiteke.

Loditasuna gaixotasun mordo bati lotuta egoten da: bihotz-hodietako sistemarenak (barizeak, hipertentsioa...), metabolismoarenak (diabetea...), liseri-aparatukoak...

Loditasunaren tratamenduak hainbat arlo dauzka. Bat, dieta hipokalorikoa da: gure kaloria beharrak pisu kilogramoko 30-35 (ariketa fisiko arinetarako) eta 40-45 kilokaloria (ariketa gogorragoetarako) bitartean daude. Dieta baten helburua pisua erritmo egokian galtzea da (astero kilo erdi edo kilo bat), gorputzak behar dituen elikagai guztiak hartzen dituela, beti ere. Eduki gura den pisua lortu arte dieta aurrera eramateko gauza izan behar du gaixoak, eta dieta egitearekin lotura daukan edozein arazo psikologiko saihestu behar da.

Beste arlo bat, ariketa fisikoa dugu: hobe da, argaltzeko, ariketa fisiko arrunta egitea (eskailerak igon, lantokira oinez joan...) oso ariketa gogorra baino.

Botika edo farmako bidezko tratamendua baztertzeko ahalegindu behar da, eta erabiliz gero, ez dadila izan bakarra. Era honetako tratamenduak ondo zehaztu behar dira alde aurretik, eta beti ere mediku baten zaintzapean egin beharko dira. m



**«Loditasunari aurre egiteko, farmako bidezko tratamenduak baztertzeko ahalegindu behar dugu hasiera batean»**

OSAE IDE? HORTZ? KLINIKA  
Aranza Etxebarria

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behea eskualdean ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

**HORTZ? KLINIKA**

Tel. & Faxes: 94 460 06 21  
Andikoetxe 2, behea ezkerrean  
ALGORTA



Ezkonberririk askok xahututako dirutza berreskuratu ohi dute oparierik eskerrak

## Ezkontza kontuak

Egunik zoriontsuena, garestiena ere

**Ezkontza bat antolatzea ez da, ez, lan erraza. Senar-emaztegaiek pazientzia eta aurreikuspena eduki behar dituzte. Eta hori ez da guztia. Patrika eta kontukorrontea diruz beteta edukitzea ere komeni zaie, zoriontsuena ei den eguna zorigaiztokoena bihurtu ez dadin.**

**Ezkontzaren** salneurria ezkongaien (eta euren familien) aukeren arabera dagoen arren, ohiko eztei bat antolatzea 13.000 eta 20.000 euro bitartean dago. Hala egiaztatu izan dugu Leioan egin berri den Ezkongaien Ferian; herriko saltokien elkarteak antolatuta, ezkontza kontuetan zerikusia daukaten enpresen ordezkariak zabala bildu zen, senar-emazte izatekotan dabilzan lagunena lantzeko-edo.

**«Ezkontza batek 13.000-20.000 euro balio du»**

Betiko jantzi-dendek loradendakaz, bidaia-agentziakaz, bitxitegiakaz, jate-keakaz eta dekorazio-dendakaz lekua partekatu zuten karpapean; gonbidatuentzako oroigarritxoak eta argazki-erreportajeak egiten dituzten enpresek eta gozotegiak ere parte hartu zuten Leioako azokan.

Ohiko ezkontza batek ezinbestekoak diren jantzi dotoreak (jakina, zuria emakumezkoentzat; iluna, berriz, gizo-

nezkoentzat), 65en bat euroko lore-sorta bat, eraztunak, argazki-albuma, ehun mahaikide ingururentzako bazkari oparoa, eta Karibera edo Egiptora bidaia ordezkariak hartzen ditu barnean. Baina gero eta gehiago dira zerbait berezia bilatzen dutenak. Halakoetan, ezkongaien nahiago dituzte diseinu eksklusiboa, jantzien oihalen aberastasuna, lore ugartasuna, elizaraino ibilbidea egiteko Rolls Royce bat, edo ezkon-hitza zigiluz itxeko brillanteko eraztuna. m

### JAKINEAN EGOTEKO

- **Eztei-jantziak:** Gutxienez 900 euro emakumezkoenak eta 500 gizonzkoenak. Diseinu eksklusiboa batek, 2.000 euro inguru.
- **Otordua:** 55 eta 100 euro bitartean mahaikideko.
- **Argazkiak:** 50 argazkiko erreportajeak, 840 euro; album digitalak, berriz, 1.800.
- **Musika:** Orkestraren ordu biko saioak bazkalondoan, 850 euro inguru.
- **Dekorazioa:** 500en bat euro.

I aki  
Bitxitegia  
Ω  
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA  
Villamonte T: 4302345  
Algorta

moda gaztea  
opariak  
VIRATI  
Torre 2, ALGORTA  
T: 94 491 12 71

Errotalde  
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

**GAVRKO**  
GIZONENTZA -  
KO MODA  
Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

# irabazi UKrekin

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak  
x Erreuma x Kiroleko

Lor ezazu Mugiren eskutik ordu bateko masai bat debaldeGaldera

**zein urtetan kaleratu zen UKren 0. zenbakia?**  
94 491 13 37  
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELA 17 67

# Gonzalo Iribarnegaray idazle eta bidaiari getxoztarraren eskutik

## “Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

**UK**

aluzkaria euxean jaso nahi baduzu  
**94 491 13 37**

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba  
Astezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo  
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

[sarean]

# Gure eskualdea zerutik

## Foru Aldundiaren webguneak Bizkaiko kartografia osoa gure eskura jartzen du

**George Orwell** idazleak irudikatu zuen mundua gero eta benetakoagoa bihurtzen doa: zelatan dugu Anaia Nagusia. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanak eta Hirigintza sailak [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) helbidean (kartografia atalean, hain zuzen) paratu dituen irudiei eta mapei esker norbera bere etxean zertan dabilen antzeman daiteke ia, geure buru gainetik hartutako argazkiak ditugu-eta.



<http://www.bizkaia.net/Hirigintza/mapak/cartografia.asp> helbidean sartuz honelako irudi ikusgarriak lor daitezke

Bizkaiko udalerri guztiak ikus daitezke aireko argazkiotan, eta benetan ikusgarriak eta kalitate handikoak dira; itxaron egin behar da apur bat zabaldu arte, baina merezi du zain egotea. 1:5.000 eta 1:1.000 eskaletan daude mapak, *dwf*, *exe* eta *jpg* euskarrietan, eta

aspaldiko kartografia ere badago erabiltzailearen eskura. Udalerri zehatza edo dagokion eremuaren zenbakia aukeratu daitezke; Uribe Kostako gainazal topografikoaren argazkiak (ortofotografia) 037 eta 061 zenbakietan

# webgida

**OLENTZARO**  
>[www.olentzaro.net](http://www.olentzaro.net)

Aita edo amaren ahots goxoaz ez bada ere, web-orri honek ipuin bat kontatuko dizu pazientzia apur bat edukiz gero (ADSLrik eduki ezean, pazientzia handia). Oraingo hori da eskaintzen duen gauza bakarra, baina eduki gehiago iragarri dituzte gabon sasoirako.

**UMEENTZAT**  
>[www.gabonak.com](http://www.gabonak.com)

Lehen orrian galdera argia: “Olentzerogan sinesten al duzu?”. Eta erantzuteko aukerak. Holan hasten da [www.gabonak.com](http://www.gabonak.com). Aukeratutako erantzunaren arabera, web orriak eskaintzen dizuna ikusi ahal izango duzu ala ez. Ezezko kasuan, ezin izango duzu aurrera egin; baiezkoan, Olentzeroren gaineko hamaika kontu izango dituzu ikusgai.

## Sarean aurkitu dugu > Noeren arka



Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. [aldizkaria@euskalnet.net](mailto:aldizkaria@euskalnet.net)

ALGORTAKO GAZTE ASANBLADAREN eskutik



# esanak esan!

## algortako musika talde gazteen diskoa

de blankon · lei · ekin · diskrepa  
sintriki · konter · kiero · silenzio  
alterkado · el eskroto de goya  
nun · ni puta idea · voodoo · iraina  
odd heathenish · patada en la papada ·  
autosekuestro · olokausto

herriko tabernetan **SALGAI**

Harremanetarako:  
652 772 104  
[sastrakagaztetxea@hotmail.com](mailto:sastrakagaztetxea@hotmail.com)

EZ ORDAINDU  
**5 EURO**  
BAINO GEHIAGO

b b b b b  
b b b b b  
bxt ob ob  
b b b

**elkarri**

txb · xutut



**ALBE** alerik ale

# Eskola zaharra bizirik den seinale

**Gabi Basañez** > Ibilbide luzeko beterano gaztea

**Aurtengoz bera da sail honetako azkena, euskararen aldeko borrokan eredurik onena, ALBEko iragana eta oraina uztartzen dituen. Eskolako kide gehienak pasa dira bere aurretik, eta lehengo, oraingo eta geroko eskolaren aldeko apustua egiten du Gabik barren-barrenetik.**

Testua: **Josu Arroyo**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**



Euskaltzalea, dantzaria, musikaria, bertsozale eta bertsolaria... euskal saltsarako ezinbesteko perrexila.

—Lehen elkarrizketa Josu Landetari egin genion, eta azkena zeu zara Gabi. Zer adierazten du horrek?

—Batetik, bertsozaletasuna ez dela ume gazteen kontua. Herri kontua dela, adin guztietakoak biltzen gaituena, bertso bidez komunikatzean, jolastean, jokatzetan, eratzen dugun sarea. Bestetik, ebaki ez den katea dela, ordukoengandik gaurkoenganaino eta gaurkoengandik sortu ere ez direnenganainoko kate mailak dituen.

—Lehengoan, ALBEko bazkideen egunean, ilusio handiz ikusi zintugun mikrourrean. Ilusio hori ez al da sekula galduz?

—«Barrikadako bertsolariongan» ez. Ez dugu saria lehenen artean egotea, ez eta aipamen bat edo beste helbururik handiena. Ez dugu mikrofono jarduna bertso etxe bakarra. Bertsotan gozatu egiten dugu, uste duguna berbaz josiz, hitzen esanahiagaz olgatuz, edonon eta edonoiz. Garikoak asper-asper egin arren ere, bertso ekinak piztu egiten gaitu.

—Eskoletan umeak bertsotan trebatzen ibilitako batek, zer sentitzen du ALBEko gaztetxoak kantuan entzutean?

—Katea ez dela eten. Eskolan buru belarri zabiltzenok harro izateko arrazoirik ez duzuela falta. Neurekin ibilitakoak ikustean, berriz, barrutik puztu egiten naiz. Zelo apur bat ere sentitzen dut... Neuk baino sano hobeto egiten dutela ikustean.

—Euskal Herrian gehiago egin behar da euskaraz. Bertsotan ere bai?

## ERAKUSLEIHOA

- ▶ Gabi Basañez Ruiz.
- ▶ 1963ko maiatzaren 6an jaioa.
- ▶ Sopeloztarra.
- ▶ Egun Santurtzin bizi da.
- ▶ Ikasketa ugari ditu eginak.
- ▶ Euskaltzalea (Horrela definitu zuen bere burua).

## ESKOLA BIDEAN

Bertsotzailea: **Gabi Basañez**

Doinua: **6 puntuko berezia**

**1**

Trinogaz hasi gintzezan  
Eusebito be etorten zan;  
lehen aldia ikastolan ta  
botilen gerizan.  
Kateatik bagenbizan,  
nahiz erdi mozkorrik izan,  
orduko bertso ia guztiak  
Isidro ekizan!

**2**

Joseba gero, bitarte,  
Freditxugaz atez ate;  
bertso paperen txapelketa bat  
hurrengo albate.  
Eskualde txapelak kalte  
ez oskun egin hainbat be,  
zer ez da zertu bertso epaile  
batzuk sortu arte.

**3**

ALBE sortzea ahal be,  
«Geko-eskola»ri salbe,  
bertso errekarari sortu dotzegu  
hamaka ugalde.  
Kantuari inoiz ez galge,  
ibili alderik alde;  
neu ikuskeran puntua bota,  
ez lotu berbalge!

HIRU LERROAN

## “Neure moduko paseko txorientzako babestoki da eskola”

—Dударik ez. Boza kanturako findu, ideien zorrozpenerako ariketa paregabea, jenteen ezautune, euskararen aberasgarri. Gainera, denbora eta aukera berberaz eztabaidatu ahal izateko aukera bakarretakoa da bertsotan ibiltzea. Aukera ona eta merkea.

—Azken elkarrizketa honetan, azken aldarr moduan, zer mezu helaraziko zenieke ALBEko familiako kideei?

—Neure esan honen beharrik barik ere orain arte mantendu izan duzuen kabiari

eusteko. Neure moduko paseko txorientzako babestoki behar-beharrezkoa gorde duzuela, euskaldun sentitzeko aukera zabalik mantendu duzuela eta, esker ona agertzen dizuet. Ez daigula inoiz bertso aukerarik galdu!

*Serio hartu beharko Gabiren berbak, bertso eskolen mundua eta bereziki ALBE ondo ezagutzen baititu berak. Mezu positiboa helarazi digu, eta bide batez, gure eskolaren nondik norakoez jarduteko, bertsoak utzi dizkigu, ez bat, ez bi... hiru!!! m*

## BERTSOAGENDA

**AHOBIEN GALA 2003**  
*musika eta bertsoa*

**Abenduak 20, 17:30ean**  
*Algortako Getxo Antzokian*

**Aurkezlea:** Estitxu Fernandez  
**Bertsolariak:** Egaña, Lizaso, Iturriaga eta Elortza

**Gaijartzailea:** Peio Unzurrunzaga  
**Saridunak:** Peio eta Pantxo, Anje Duhalde, Mikel Laboa, Tapia eta Leturia, Benito Lertxundi, Alaitz eta Mainer, Gozategi anaiak, Ruper Ordorika, Oskorri, Mikel Urdangarin eta Xabier Lete

# Sintaxia lantzen (II)

Aurrekoan, sintaxiari heldu genion; hain zuzen ere, denborazko esaldiak eta konpletiboak aztertu genituen. Behar honegaz jarraitzeko, helburuzko esaldiak, kausalak eta moduzkoak dakartzagu oraingoan. Horretarako, menperagailu eta juntagailu batzuk bildu eta adibide bana imini dugu.

Testua: Urtzi Iglesias

## Helburuzkoak

### -tearren

Helburuzko esaldietan, *-teagaitik* erabili beharrean, *-tearren* erabiltzen da (*-t(e)arrik* ere erabiltzen da berbeta batzuetan):

*Zugaz berba eitearren etor da Martin* (Getxo)

‘Zurekin berba egiteko etorri da Martin’

### -ten

Zertara galderari erantzuteko balio duen *-t(z)era* atzizkia ez da erabiltzen, *-ten* erabiltzen da honen ordeaz:

*Portaltera yoten zan benedeje saltzen* (Erando)

‘Portugaletera joaten zen benedejea saltzera’

## Kausalak

### Eta

*Yake imiñi, hotza dao ta* (Leioa)

‘Jaka ipini, hotza egiten du eta’

### Ze (... eta)

*Felisa! Ez yo ezebere ze nire semeak zuk baño hobeto yoten*

*dau* (Getxo)

‘Felisa! Ez jo ezer, nire semeak zuk baino hobeto jotzen du eta’

## Moduzkoak

### -n modun (-n moduan)

*Zuk esan dozun modun ein dot* (Getxo)

‘Zuk esan duzun moduan egin dut’

### -n lez (-n legez)

*Kanpoko dalez ez daki euskere* (Leioa)

‘Kanpoko denez, ez daki euskaraz’

### -lako

*Ez dot in lorik kafe hartu dotelako* (Leioa)

‘Ez dut lorik egin kafea hartu dudalako’

## Esakera

«Asto yon ta mando etorri»

Asto yon ta mando etorri.  
Nonbaitera gauzaren bat egitera joan behar duzula, bidaia alferrikakoa izan eta lehengo moduan lotu zarela?  
Ederto datorkizu, bada, esakera hau.

## Gurberbake<sup>32</sup>

### ESAKERA ZAHAR? BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Gabonak eta urte barri dekuz ganen, eta sasoi honen ganerako esakera zahar batzuk ikusiko doguz Berbakere honetan, Azkue eta Gotzon Garate euskeraren maitale handik batu daudezenak. Ez direz gure eskualdeko esakerak, baia esakera zahar guztikez edo gehienakaz pasaten dan lez, esaten doskuenak bardin balio dau guretzako zein beste edonontzako. Hemen doaz, hasteko, Azkuek batuko batzuk, gabon sasoi agur modun erabilteko balio daudenak:

*Gabon da, ta barri on!* (Bizkaian batute: Lekeitio, Mundaka)

Gure denpora modernotako filosofierako apoposa dan agur bet:

*Gabon, daukanak bonbon eztaukanak egon!* (Bizkaia: Mundaka)

Eta solidarioau dan bat:

*Gabon, daukanak eztaukanari emon!* (Bizkaia: Zeanuri)

Urte barrin ganerako esakerak bere badauz. Hemen doaz G. Garatek batuko esakera batzuk, betiko lez, gu danok bere zelauk garan erakusten daudenak:

*Urte barri, zoruek pe igerri; baño batzuetan sanuek pe asko estutso igerten.*

*Urte barri, txarri belarri, deukonak ezteukonari, nik ezteukot eta neri.*

Garaten beste hau ederto dator sasoi honetan ze ondo hornituten garan aitetuteko:

*Urte zar, galtza zar, urte berri, galtza berri.*

Eta akabateko, koplak moduko bat, “agiñaldo” emon gure ez dauner bihotza bigunduteko:

*Urte berri eguna, ez dala egun txarra,  
kortara jausi dala gure sapai zarra;  
daukanak eztaukanari,  
nik eztaukat eta neri,  
kantaretan bat, kantaretan bi,  
ekazu agiñaldo Jangoikoagatik;  
agiñaldo, agiñaldo,  
bota gaztañak ta ixilduko.*

Eta hori da dana aurtengorako. Ondo pasa jaiok, *urte barri asmo barri* asko egin, eta ez ahaztu: *Urtek agoa luze deko!*<sup>m</sup>



oporretara  
goaz!!!

aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37

**dirulaguntzak**

Boluntzarreta  
BBK 2095 0121 10 9102483676  
sartu zure laguntza gure kontu zerbakian

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.  
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Intxaurre mazapana

Gauean ditugun Gabon jai hauetarako, nire amak (Mari Carmen Zuluetak) egiten irakatsi didan postre gozo bat proposatzen dizuet. Oso erraz prestatzen da. Hasteko bowl batean almendra birrindua eta glas azukrea eskuz ondo nahastu; gero, arrautza zuringoak elur-puntuan eta ur apur bat gehitu. Hau dena ondo nahastu ore trinkoa lortu arte. Azkenik intxaurre zatiak gehitu. Lortu dugun masa edo ore pintzel baten laguntzaz arrautza goringoz zikindu eta molde batean sartu guztia. Apaingarri moduan intxaurre zati batzuk jarri gauean. Labean sartu 10-15 minutuz 180 graduan eta kitto. On egin! <sup>m</sup>

### osagaiak

kilo erdi almendra birrindu • kilo erdi glass azukre • hiru arrautza zuringo • goringo bat • 200 gramo intxaurre



itsaso arana / jolastoki-koa

## Kabak jakin behar dena

**1—Mahatsa:** beste mahats mota batzuk erabiltzen badira ere, honako mahats motekin lortzen dira kaba onak: macabeo, xael.lo, parellada eta chardonnay.

**2—Segituan edateko:** behin sotoetatik atera ondoren, edan egin behar da, ez baita gordetzeko. Hala ere, modu egokian gordeta, argirik eta berorik gabe, ondo irauten du.

**3—Denbora:** kaba batek gutxienez 9 hilabete behar ditu egiteko, eta 30 hilabetetik gorakoa denean, Erreserba Handia esaten zaio.

**4—Edateko:** koparik egokiena, txirula erako luzea eta estua da; beti behetik eutsi behar zaio.

**5—Botila zabaltzeko:** kortxoari eskuarekin heldu, eta botila astiro biratu. Kortxoa kentzean ateratzen den soinuari korroskada esaten zaio.

**6—Tenperatura:** bost eta zazpi gradu artean edatea gomendatzen bada ere, bederatzi graduan ere edan daiteke.

**7—Mota:** kabak azukre mailaren arabera desberdintzen dira:

*Brut Nature*, azukrerik ez; *Extra Brut*, 6 gramo arte litroko; *Brut*, 15 gramo arte; *Extra Seco*, 12-20 gramo; *Seco*, 17-35; *Semiseco*, 33-50 eta *Dulce*, 50etik gora.



## Ganeta Berri taberna

barra luzea pintxoak betea



Angel Pagador (eskuinean) dugu Erromon oso errotuta dagoen Ganeta Berri tabernako ugazaba

**Erromoko** Ganeta Berri tabernak batzokia zegoen lekua betetzen du; izan ere, ondoko taberna txikerraren ugazaba zen Angel Pagadorrek orain dela 16 urte erosi zuen batzokia, eta hala bihurtu zen aspaldiko Ganeta Bat hura gaur egungo Ganeta Berri hau.

Pintxoak aukeran ditu berezitasun, eta Angelek esan digunez, “*Eskuinaldeko onenak eta oso merkeak dira*”; egia esan, sona handia eta primerako kalitatea daukate. 50en bat pintxo mota prestatzen dituzte, eta bat nabarmentzea asko kostatu zaion arren, Angel Pagadorrek zenbait aipatu dizkigu: perretxiko pintxoak pil-pil bakailoagaz eta egurrean erretako piperragaz, itsaski tartaleta, foie

pintxoak eta gula baratxuritan kazolatxo. Galiziako olagarroa eta Iparraldeko antxoa eta hegaluzea dauzkatenak ere kontuan hartu beharrekoak ei dira.

Sei lagun dabilta Ganeta Berrin beharrean, sukaldean zein barran. Taberna urteko egun guztietan dago zabalik, goizeko 7:00etatik gaueko 22:30ak arte. Gainera, asteakubetan barra pintxoak gainezka egon ohi da, baina mokadu gozo horiek dastatzeko azkar ibili behar dugu “*ordu eta erdian agortu egiten dira-eta*”. <sup>m</sup>

### GANETA BERRI TABERNA

Ganeta kalea, 1 - Erromo  
Telefona: 94 463 51 19



## URDAITEGIXA

Adituak gara,  
Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

## Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93



galdaretxe gozo-  
denda

• GETXO • AREETA • LEIOA • ALGORTA • SOPELA •



## TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO



prentsa ¥ aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

## EREAGA

Bidaiak  
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988  
Faxa: 94 453 33 34


GETXO

## OLATXO

altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5  
AREETA ALGORTA  
T.: 94 464 89 94 T.: 94 491 13 94

## VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

## [horoskopoa]

### URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Jende berria ezagutzea polita izaten da, baina batzuetan lan astuna ere bada; ahalegina egin beharko duzu. "Laster arte" esan zenion, hilabeteak joan dira, eta oraindik ez duzu ikusi: ahaztuta egongo al da?

### AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Zenbat aldiz esan dizute adinduek esaten dutena kontuan hartu behar dela? Oraindik ez duzu hori ikusi. Txepel aurpegia duenik ezin da ukatu; dena den, leporatzen diozun guztia ez da egia, eta badakizu, gainera.

### GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Pertsona hori ikusten duzun bakoitzean gorritu egiten zara; ez kezkatu, agian beroarengatik dela pentsatuko du. Noiz joan zinen azkeneko aldiz dentista-rengana? Zeure burua gehiago zaindu beharko zenuke.

### META

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Lanean gauzak nahiko gaizki doaz; erraza ez den arren, lasai hartu, garai hobeagoak helduko dira-eta. Beti izarretan pentsatzen egoten zara; lagunari ez badiozu kasurik egin behar, gutxienez ez ikusiarena egin.

### OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Bikotekideak eta biok ez duzue itxura txarra ematen elkarrekin, baina hobetu ere egin daiteke. Usain ona zuelakoan erosi zenuen lurrin hori, eta orain, inguruko guztiek ihes egiten dute zure albotik.

### HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Azken txanpan sartu zara oporrak hartu aurretik, eta urduri zaude noiz helduko zain; lasai, ailegatuko dira-eta. Behin okertu zinen, eta orduz geroztik ez du ahaztu: harrigarria da zelako oroimena daukaten batzuek!

### LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Familiako kide kuttun bat urruti joan zaizu. Badakizu hilabete gutxi barru berriz itzuliko dela. Sakelakoagaz nazka-nazka eginda zaude, unerik txarrenetan deitzen dizutelako; horrelakoetan, itzaldu eta kitto.

### HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Familiagaz oso ondo sentitu zara azken bolada honetan; senideak hurbil izatea eskertzekoa da, ezta *Hazia?* Gura duzun guztia egiten duzu, eta ingurukoek ez dute ulertzen nondik ateratzen duzun hainbeste diru.

### ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Baina zertan ibili zara dakazun itxura xeble horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.

### EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Berarekin egon behar duzula jakiteak berak gaixo ipintzen zaitu; hala ere, ahalegintxo bat egin beharko zenuke. Azken hamabost egunotan gauza bera errepikatu duzu: "Nekatu nago". Ea noiz hartzen dituzun oporrak!

### IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Bizilagunek musika altuegi ipintzen dute, eta ez dizute lorik egiten uzten; kezatzera joateko ordua ailegatu da. Erosketak egitera joaten zarenean, guztia erosi gura izaten duzu; aukeratzen ere jakin behar da.

### NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Lan eskaintza interesgarri bat egingo dizute, baina baldintzak direla-eta, hainbat zalantra izango duzu: irakurri letra txikia! Lagunakaz haserretu zara; izan ere, beti eurek gura dutena egin behar izaten duzu, eta nazkatu zara dagoeneko.



KEKO

## mungia

OKINdegia

Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**HITZ GURUTZATU**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamar beltzune ditu.

**Ezker eskuin**

1. Gazteen nolakotasun. 2. Lege. Iragan. 3. Zarrapoa, atzamarra. 4. Saltzaileak, traizio egileak. 5. Interjekzioa. Ekialde Hurbileko estatua. Bat. 6. Gai optiko. Potasioaren sinbolo kimikoa. Jupiterren satelite. 7. Arrainak erakusten diren lekuak. 8. Har ezan. (Errep.) Atean jotzearen onomatopeia. Zutik. 9. Joan den urtean. Erotu. 10. Kui. Luzatu aditzaren infinitiboa.

**Goitik behera**

1. Gaztelako hizkuntza, espainiera ere deitua. 2. Bitartekariak. 3. Zaude. Letra grekoa. Zaren hori. 4. Bidaiariak. Röntgen. 5. Bokala. Aditzera eman. 6. Indonesiaren menpeko herria. Isildu! 7. Bizkaieraz, ageriko. Rutenioa. 8. Pilotan, tantorearen hasiera. Larru. 9. Behiaren arbasoa. Ukitu. 10. Hari, noa. Istua, listua.

Soluzioak

V	L	U	I	R	I	A	K	U	R	A	V
U	T	V	Z	O	Z	Z	A	V	I	A	I
T	U	Z	X	K	A	V	K	O	N	O	N
K	A	K	O	A	R	I	A	R	I	A	K
O	I	K	E	N	T	E	N	T	E	N	T
I	A	V	S	I	R	I	S	I	R	I	S
K	A	K	E	R	O	D	O	R	A	V	A
O	A	V	A	R	A	M	I	K	A	M	I
O	A	R	O	I	G	A	V	A	R	O	I
N	S	U	N	T	E	T	A	S	U	N	T



**eUSKĀLDUNON**  
denbora-pasa eta  
hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK .....  
 HELBIDEA .....  
 HIRIA .....  
 LURRALDEA ..... P.K. ....  
 TEL. .... E-MAILUA .....

KONTU KORRONTEA:.....  
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutsatila 20300 IRUN  
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xvedera.com

www.xvedera.com



JULIA LEARRA DENDAKOEK UTZITAKO ARGAZKIA

Unai Brea

**Zabalako eskolak, 1934**

**Algortako** Juan Bautista Zabala kalean aspalditxotik dago eskola. Begira, bestela, 1934 inguruan egindako irudi honi. Bertan ageri diren ikasle guztiak mutikoak dira, garai hartan, geroago Francoren diktadurapean bezala, neskak eta mutilak ezin zirelako elkarregaz joan eskolara. Kasu honetan, harresia zegoen, eta hark banatzen zituen batzuk eta besteak. Dena dela, hurrengo batean nesken erretratua ekarriko dizuegu. Bestalde, eta igarri daitekeenez, Juan Bautista Zabalako eskolak ez dira mugitu, baina euren itxura askotxo aldatu da, beste gauza asko aldatu diren bezala. Begira, esaterako, lehen lerroko ume batzuen oinetakoei. Denbora ez da alperrik igarotzen! m

**Lehenengo lerroa (jesarrita):** A. Bueno, T. Aguado, E. Mazo. S. Isusi, J. Valdemoro, F. Martínez Learra, E. Domínguez, "Pepin", ?.  
**Bigarren lerroa:** I. Sanz, Aguado, L. Gómez, ?, ?, A. Pinto, E. Gutiérrez, E. Bretos, T. Aguiriano, E. Agirre.  
**Hirugarren lerroa:** Cajigas, S. Galín, ?, J.M. Aguiriano, M. Saitua, J. Atxurra, "Juanero", B. Aguiriano, I. Olabarria, ?, A. Uriarte.  
**Laugarren lerroa:** L. Saitua, R. Tapia, C. Cuartango, N. Méndez, J.M. Arana, A. Landa, D. Pablo, G. Elorriaga, I. Tellitu, J.M. Domínguez, J. Gómez.  
**Bosgarren lerroa:** ?,?, Santamaría, J.I. Otazua, Ibáñez, J. Bretos, E. Esesumaga, J.M. Etxeandia, S. Uranga.

\* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik badaukazu, jarri zaitetz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Bost bidaia egin ditu Pangea izeneko proiektuaren barruan
- Bigarren postua lortu zuen azken Bertsolari Txapelketan
- Zugasti da bere bigarren abizena, eta Hernanin jaiotzen 1976an

> Aurrekoaren erantzuna: Félix Linares  
 > Irabazlea: **Gorka Fernández \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
 aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

*Gardoki* Jatetxea



Mendieta kalea 47  
**Sopela**

Telf. erreserbak: 94 676 07 61  
 astelehenetan itxita

[aitormenak]

**ARANTZA SINOBAS** > aktorea

“Ekialdeko kultura miresten dut”



**Zure izakera definitzen duen ezaugarriren bat...**

Gemini naiz eta geminiaren ezaugarri nagusia bikoiztasuna da. Era horretako hainbat ezaugarri islatzen dira nire izakeran: barietatea, jakinmina, aldakortasuna, aniztasuna...

**Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?**

Ez naiz batere puntuala.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat...**

Txikia nintzenean gogoratzen ditut eskolako jolastokian ume guztiak ilarak egiten, bata besteari besoa sorbaldaren gainean ipintzen eta guztiok banderari begira. Artean Francoren garaian geunden.

**Zer da gehien miresten duzun pertsona?**

Dalai Lama. Asko estimatzen dut bizitzan bere ideiak aditzera ematen duena, eta horiek guztiak aurrera ateratzeko gai dena. Esan behar dut, ekialdeko kultura miresten dudala.

**Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?**

Oso zorte ona daukat. Jendea oso ondo portatzen da nirekin. Behin gizona batek nire programa ikusteko telebista berri bat erosi zuela esan zidan. Momentu horretan *Operación Triunfo* booma zegoen eta bere etxean emazteak eta seme-alabek huraxe ikusi nahi zuten. Berak oster, ez.

**Zein da zure libururik gogokoena?**

Asko gustatu zitzaidan Alejandro Bariccoren *Seda* ipuina.

**Abestirik gustukoena?**

Asko eta asko dira. Beatles edo Queen taldeen edozein abesti.

**Eta film bat?**

Uff! Garai guztietakoak gustatzen zaizkit, zuri beltzeko filmetatik hasita, zinearen urrezko urtekoak hain zuzen ere, gaur eguneko filmeak arte: *Amelie*, *El señor de los anillos*...

**Zein lelogaz egiten duzu bat?**

Ekaitzaren ostean barea dator.

**Eta zerk egiten zaitu zoriontsu?**

Gauza asko, gero eta gehiago gainera. Maitasunak, abesti batek, liburu berri bat irakurtzen hasteak... m

**ARANTZA SINOBAS**— Antzerkia, zinema, telebista, moda diseinua... hainbat arlotan jardun du Legazpiko aktore honek. Gutxiak jakingo dute, esaterako, Pilar Miró-ren film batean hartu zuela parte. 2000. urtean, antzerkian zebilen bitartean, ETBko casting-era aurkeztu eta *El Factor humano* saioa aurkezteko hautatu zuten. Gaur egun ETB-2ko *El Topo* reality show-aren aurkezlea dugu. Saio horretan partehartzaileek taldean infiltratua nor den asmatu behar dute.

*musika eta bertsoa*

**ABENDUAREN 20an**  
**Getxo Antzokian**  
**17:30etan**  
**sarrera: 3 euro**  
**Algortako Kultur Etxean (Villamonte)**

**ahobi sariak**

**Aurkezlea: ESTITXU FERNANDEZ**

**Bertsolariak:** **ANDONI EGAÑA**  
**SEBASTIAN LIZASO**  
**UNAI ITURRIAGA**  
**IGOR ELORTZA**

**Sarituak:** **Peio eta Pantxoa, Anje**  
**Duhalde, Mikel Laboa, Tapia eta Leturia,**  
**Benito Lertxundi, Alaitz eta Mainer,**  
**Gozategi anaiak, Ruper Ordorika, Oskorri,**  
**Mikel Urdangarin, Alex Sardui eta Xabier Lete.**

